

BASILIO PUJANA



**EGI BATZUEK
AIXETARATZEN**

BASILIO PUJANA

Auspoa Liburutegia

191

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

BASILIO PUJANA

**EGI BATZUEK
AIXETARATZEN**

Auspoa Liburutegia
1986

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Gipúzcoa)
Fotokonposatzalle: LENTE Estella
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
Depósito Legal: NA. 763-1986
ISBN 84 - 7158 - 137 - X

ARKIBIDEA

Nere bizitza saltoka-saltoka	9
Nere aurtzaroa	21
Ama ta semea	29
Gernike erretzeari	34
Bilbo'ko misinoiak	40
Aita Martzeleri	43
Aita Santu Pio XII'garrenari iltor- duan	46
Arenaleko txapelketa	48
Beljika'ko erregiñari	52
Juan Azpillaga'ri bere ezkontzan .	54
Txirritaren omenaldian	57
Bertso-papelak	60
Legez kanpo	66
Munduko pasadizua	72
Biotza samur	77
Agur, Montaña	81
Naparroa'ko illerokoa	85
Abadeak preso	88
<i>Iturri</i> 'ren omenaldia	105
Pentsakizunak	110
Erri baten kezak	116

Zuzenbidea	121
Gaurko mundua	124
Ausnarketak	136
Erbesteratuak etxera	143
Arratiarrak Urkiola'ra	147
Goratarrez	151
Jose Mari Artetxe zana	154
Aita Domingo Iturrate Beato egin zanean	161
Begoña azpiko ikastolan	166
Artzainari agur	169
Seme-alaba agurgarriak	171
Azkena	174

NERE BIZITZA SALTOKA-SALTOKA

Ni 1913'an, Zezeillearen 27'an, jaio ei nintzan, Zeanuri'ko Zulaibar auzoan, Ugerkazelai baserrian, guraso umil batzuen bitartez.

Nire aita-amak, Emeterio eta Maria Dolores izan ziran, eta ni nintzan bederatzi neba-arrebatatik seigarrena.

Gure etxea eta bere lurrak parrokiarenak izan ziran, eta, iru urte neukazala, etxea erre egin jakun, anai zarrenak amalau urte eukazala.

Eskolara arteko urteak igaro, Jaungoikoak gura izan eban lez, eta eskolara asi nintzan zazpi urterekin.

Orduan lelengo bildurra artu neban mundu onetan biziteko: bertan, sarreran, derrigorrezko erdera egin bear zala-ta, turdituta gelditu nintzan, beste guztien antzerara.

Eskolako denpora au igaro neban alan edo olan, euskaldun ume guztiok igaro eben antzera, gure euskera apurrean eta erdera, latin ta abar.

Gure ama bertso-kantaria izan zan. Kantatzen euskuzan Azken Juizioko eguneko bertsoak, ta bai *guerra europea*'koak bere, Urkiola'tik ekarritakoak, Txirritari erositita. Baita Balentin Berriotxoa'renak bere.

Lenengo aldiz nik bertsoak kantatzen plazan ikusi nebazanak izan ziran, nere erri Zeanuri'n, Don Benito Atutxa parroko izan zanean, *Zidorra* (Bizente Etxezarraga) eta Patxi Beobide, Ipiñaburu'koa, San Luisen jai baten.

Amasei urtegaz joan nintzan morroi Eleuterio Goikoetxea'ren etxera, eta orduan sartu jatan bertso kantatzeko aria.

Bizente Etxezarraga, *Zidorra*, Eleuterio Goikoetxea'ren lagun andia zan, eta gaiñera olerkari ta bertsolari umoretsua. Sarri ibiltzen zan Eleuterio zirikatzen, eta bein baten neuk erantzun neuntsan. Ori, batzuen eritxian, bonba izan zan.

Orduan, Paulo *Astronomia*'k bere zerbait kantatzen eban lez, Don Benito Atutxa parroko zala, biok egin gendun, dotrinako sariketa baten, Zeanuri'ko elexpean; eta, gurea entzunda, esan eban *Zidorra*'k: bera ez doala kantatzen, gu askoz geiago giñala-ta.



Basilio Pujana, Zeanuri'n, bertso kantari.

Gero, urrengo urterako agertu zan Artetxe Jose Mari. Paulo baztertuta, beragaz egin nebazan burrukarik andienak.

Ortik asi giñan tabernetan kantari, eta izan ziran orduan zein-geiagoka batzuk, bertotan baiño geiago sarriten diskusioetan, *Bertso* deitzen jakon Uriarte'ren anai bat zana eta nitzaz.

Uriarte bera bertsolari ona zan, eta or bein baten, Zeanuri'ko Andra Mari jaietan, kantatu eben Enbeita Kepak eta Uriarte'k saio ikusgarri edo entzungarri bat.

Saio au amaituta, nik urten neban programaz kanpo. Eztakit zer esan neban, baiña kantatu neban.

Ortik aurrera, Artetxe ta ni biok *popular* egin giñan. Ikusgarritzko jaiak antolatzen ziran Zeanuri'n, Don Benito parrokoaren babespean.

Lenengoz plaza librean egin neban, Artea'ko (*Castillo-Elejabeitia*) batzokia inauguratu zanean, 1932 urtean. Ni bakarrik joan nintzan bertso kantari.

Gogoan daukat oraindik, zelan parte artu eben mitin aretan Don Luis Arana'k, Sabinoren anaiak, eta irlandar batek. Au zan O'Gradi, eta detenidu egin eben, azkenean «Gora Euzkadi askatuta!» esan ebalako.

Gero, soldaduskara arte, an-or-emen

ibili giñan Artetxe ta ni, jenteari barre eragiten, eta bai zerbait balioko egiten bere.

Aldi aretan inauguratu zan Zeanuri'ko Batzokia bere; eta, bezpera-gauean egin zan jaiean, kantatu gendun, Lauaxeta ta Polisene Trabudua izlari zirala; eta Lauaxetak esan ei eban bertsolari andiak giñala.

Urrengo egunean, Kepa Enbeita'k egin eban bertsotan, ta bai bere seme Sabinekek bere.

Soldaduskatik etorrita, gerra zatarra, negarra ta galdu bearra. Orduan ez gendun jakin kanta ala negar egin. Baiña kanta bere egiten gendun euskera ta erdera.

Neuk bere zerbait jarri neban, gudariak *Eusko gudariak* doiñuan eta jarraian kantatzeko:

Fazistak datoz eta
Euskadi'ra sartzen,
goazan gudari danok
geure aberria zaintzen.
Eusko gudariak gara...

Ezta sartuko iñor,
ez, Euskalerrian,
eusko gudariren bat
zutik dagon artian.
Eusko gudariak gara...

Gero, mutu-aldia, nai-ta barruz iñoz bai-

ño bertso geiago kantatu. Orduan atera ne-
bazan *Gernike erretzeari* bertsoak.

Prisionero giñala bere, kantatzen neban
domeka eta jaietan: Gabonetan, Pazkoetan
(Aberri-eguna)...

Bein, Zaragoza'n gengozala, jazo jakun:
domeka baten, Gabon-jaietan, taberna ba-
ten giñan euskaldun lagun asko, ardao
apur bat edaten, eta ni bertso batzuk kan-
tatzen.

Gipuzkoa'ko lagun zintzo asko euki ne-
bazan, eta guztiok pozik izan giñan, nai-ta
gure maiteakandik urrin. An ziran Doroteo
Orbea *Utxerri*, Arregi ule-moztzaillea ta
beste asko. Oneik biok, Azpeiti'ko ta Azkoiti'
ko ziran.

Ni bertso kantari nintzala Azkoiti'ko ta
Azpeiti'ko erreketek batzuk sartu ziran, eta
nere lagunak iges egin eben tximistak lez,
bildurragaitik.

Neu bere bildurtu ta ixildu egin nintzan.
Baiña eurak esan eustien, erreketek, ja-
rraitzeko.

Bai jarraitu bere, baiña ardao ta ogi
ederraren gailan, Zaragoza'n biak ziran
onak eta.

Danok pozez bertsoz eta ardaoz, ta la-
gun eginda amaitu ta aldendu giñan.

Erderaz bere kantatzen neban. Bein ba-
ten, tenienteak abarketak eta buzoa emon
ez bere garaian, ta eskatu eustien kantu

bat ateratzeko orretzaz. Tenientea Racero zan. Eta kanta au atera neban:

*Racero tiene de alpargatas
lleno lleno un gran cajón,
y no quiere repartir
aunque son del batallón.
Nosotros, los gudarís,
formando una comisión,
hemos ido donde el teniente
a exponer nuestra opinión:
«Mire usted, señor teniente,
venimos con esta misión:
que reparta las alpargatas
pues ésa es su obligación».
Y él nos ha contestado
dándonos su razón:
que repartirá en breve,
aunque ésa no fue su intención.*

Doiñua: «*Vamos a formar, señores, un gobierno popular...*» bilbainadea.

Iru urte ta erdi igaro eta etorri giñan gure etxe ta lur maitera. Guk uste gendun zerbait aske izango giñala. Baiña aurkitu giñan pulpoa itxas zabalean antzera, eta kartzelan baiño bildur geiagogaz. Pentsatzen gendun baiño negargarriago aurkitu gendun, guk geu biziteko gendun lur au. Ta kukuak baiño gitxiago kantatu.

Barriro bertsotan asi orduko, ogei bat

urte igaro ziran, gaba illun luze baten antzera.

Baiña, ezin sinistuta lez, asi ziran abade-praileak garizuma-misiñoiak eta eleizkizun batzuk euskeraz egiten. Zoragarria!

Bilbo'ko San Juan'en, Zubieta anaiak, praileak, jo eben makillakadak, zabaldu eban atea. Urtero beintzat, andik aurrera, izaten ziran Misiñoi eta Pazko-aldia euskeraz.

Urrengo urtean, Aita Martzel eta Aita Eleuteri izan ziran. Gero, Aita Anasagasti eta Aita Agirretxe. Jarraian, Aita Zulueta ta beste.

Barriz artu neuntsan gustoa, kristautasuna euskeraz, geure izkuntzan, erabilteko.

Baiña ezin zan lortu meza bat egunero edo jaiero. Burruka gogorra zegon.

Don Klaudio, San Antoneko parrokoa, gogor zegon: eskubidea geunkala euskaldunok, euskeraz gure otoiak, publikoan ere, egiteko.

Bein baten, emakume batzuk gertatuta, joan giñan iru zeanuritar obispoarengana. Beste biak, iruroge-ta urtez gorakoak, Bilbo'ra derrigorrez etorriak: mezatxo bat, irurogetaka urtean entzun eben antzera, entzuteko geure izkuntzan, Jaungoikoarekin berba egiteko.

Zer erantzun utsa eta merkea berea! Misiñoi batzuk bageunkazala, errosarioa

jesuitetan Indautxu'n barikuetan, eta bazirala liburu batzuk Jesukristoren dotriña eta bizitzarekin euskeraz.

Errespetoz, baiña entzun eban baserri-tarren errazoia, ta au zan:

– Errosarioa ta liburuak neiko badira, obispoak sobra dira.

Orduko misioi ta abarrez jarri nebazan bertso batzuk.

Jarraian, Euskaltzaindia asi zan bertsolari-txapelketak antolatzen. Neuk parte artu neban Arratia'n, ta bai txapeldun urten bere.

Urte aretan, Gernike'n egin zan saio baten, parte artu gendun komarketan txapeldun autu giñanak.

Jarraian, Bilbo'ko Arenalean, Bizkai'ko txapelketea, bikaiña benetan. Alako jendetzea, gitxitan edo egundo bere ez dot ikusi bertsoak entzuteko.

Parte artzeko an izan giñan Enbeita, Azpillaga, Ormaetxe, Alberdi, Sardui eta ni. Niri Sardui'gaz tokau jatan, eta uste dot saio polita egin gendula.

Txapelketa au ospatuteko, eragozpen andiak izan zitun Euskaltzaindiak Udaletxearekin, eta aste bete atzeratu zan.

Txapelketa au ospatu ta Enbeita'k txapeldun urtenda, andik zortzi egunera, Durango'ko pelota-lekuan, Arenalean parte

artu gendunok izan giñan. Eta egun orreitan bertso-papel bat atera neban, txapelketa eta bere gora-beratzaz.

Orduan fama apur bat artu neban bertso-kantari ta bai bertso-jartzaille.

Gero, apur bat ibili giñan danok erriz-erri eta auzoz-auzo.

Kantatu dodazan erri batzuk: Gernike, Ondarroa, Elgeta, Arakaldo, Berriz, Urkiola, Zeberio, Igorre, Mungi, Leio, Elorrio, Sestao, Bermeo, Lekeitio, Ermu, Gatika, Euba, Zeanuri...

Zeanuri'ko erriko sei semek meza barria emon eben egunean, 1935 urtean, Uriarte eta Basarri egon ziran, eta nik bere kantatu neban, eurakandik aparte.

Bertsolari-txapelketetan, iru bider parte artu neban, Arrati'ko txapela irabazita.

Gero, urteak bere aurrera ta gitxi kantatu dot. Beti edo geienetan bakarrik ibili naiz, eta bakarrago Jose Mari Artetxe'k abotsa galdu ebanean. Azken onetan, gudari-egun eta mitinen baten bakarrik.

Bertso-papelen sariketa lenengoz egin zanean, sartu neban bertso-sorta, *Bertso-papelak* izenarekin. Nai-ta lenengoa ez atera, saritua izan zan. Sari au Ernani'n artu neban, Txirritaren omenaldian.

Idatzi, *Zeruko Argia*'n eta *Príncipe de Viana*'n. Baiña bertsoak beti.

Baiña an-or-emen nere bertsoari jarraitu, kantuz eta idatziz. Eta or non agertzen jatan Aita Zabala, liburu bat egin leikela nire bertsoakin.

Nik sinistu ezin: Baiña egia izango ete da?

Olan, bertsoak neure erara idatziz, liburu au osatu dot, eta biotzez iskintzen deusat Euskalerrinari, ta batez bere bertsozale guztiai.

NERE AURTZAROA

1/ Ugerka-zelai'n agertu nintzan
mundu onetako atera,
guraso umil batzuk bitarte
Jaungoikoagaz batera,
nire aurretik etorri ziran
lau anaiaren artera,
mundu ontatik igaro eta
gero zerbait izatera.

2/ Nire aita zan gizon umil bat,
indartsua ta zintzua,
ta ama barriz etsekoandre
mazala ta bulartsua.
Euren ondrea aupatuteko
aurkitzen naz beartua,
dinidadeaz eroateko
bular aitatik artua.

- 3/ Nik iru urte neukazanean
erre zan Ugerka-zelai,
eta beragaz anai guztiok
jaio giñan oia be bai.
Amalau urtez zarrena zala
izan gintzazan sei anai,
eta guztiok burutu giñan
gure Jainkoak zelan nai.
- 4/ Gure etseak mundu onetan
uzabarik etzun euki,
eta ordezko izan ziranak
danak etziran erruki.
Etsea barriz jaso egiteko
baeuen ainbat atxaki,
ta bitartean erdi kalean
guraso ta ume txiki.
- 5/ Gure zaindari izan zan legez
geure aingeru jagola,
geure bidetik alde egiten
ez euskun itxi iñola.
Gurasoak be pizturik euken
zeruetako farola,
au ikusirik sinistuten dot
Jaungoikoa badagola.

6/ Zentzun apur bat aurkitutean
au desengañu itzala:
eskubidetan neutzat zanaren
jaube bere enintzala;
zapaltzen nengon lurrak berak be
zeiñek agindu eukala,
nere Jainkoa, gizon artean
ezta justizi makala!

7/ Jaungoikoaren mundura etorri
eta aurkitu Luzifer,
gutzat Jainkoak egindakorik
ez gendun aurkitu ezer,
arnasan artzen dogun aixe au
kentzen ez badeusku laister;
alan da bere bizi gara ta,
Jaungoikoa, milla esker.

8/ Nire sortzean ondasunikan
nitzako etzan etorri,
baiña egundo ez neutson itxi
eskubide sagrau orri.
Nire izerdiz eta kemenez
zerbait egin dot ekarri,
orri eskerrak badaukat orain
errian oiñak non jarri.

9/ Osasuntsuak izan giñan ta
apetitua itzala,
eta sarriten egoten giñan
beiek noz egingo txala.
Ordun esnetan jango genduan
iru beiek emon ala,
arto-ogiten bear genduan
iru gizonen jornala.

10/ Etse-labasu egiten zan lez
etserikan geienetan,
labasu ori noz egingo zan
eiten gendun amesetan.
Etseren baten ikusten bazan
laba berotzeko ketan,
erdi ortozik joaten giñan
bertara ariñiketan.

11/ Zazpi urtetxo betetutean
eskolara asi nintzan,
baña sasoirik izan ezker
lan egin bear lurgintzan.
Zazpi urteko ume batentzat
lurgintza gogorra bazan,
nitzako beintzat eskola bere
bildur-eskola izan zan.

12/ España'ko bandera batek
egiten euskun arrera,
ta erderazko otoi bategaz
egiten gendun sarrera.
Euskera apur bat bakarrik jakin,
an egin bear erdera,
auxe bai zala gutzako beintzat
Babilonia berbera.

13/ Erderaz giñan eskolan eta
elizan barriz latinez,
aldi aretan beterik giñan
era ortako mitinez.
Lezio danak buruz ikasi,
zer esan nai dun jakin ez,
askoz obeto egin bagendun
asto aundi bat buztinez.

14/ Eskola ortan sartuta bertan
aldatu geure izkuntza,
auxe izan zan jaiokerarte
eindako atzerakuntza.
Kijotea ta Samaniego,
dana zan erdera utsa,
ta istorian bakarrik gendun
España'ko andiputza.

- 15/ Zortzi urtekin egin genduan
lenengo Jauna artzea,
arima eta gorputzarentzat
egin gendun banketea.
Erritx andi bat emon euskun da
baita be txokolatea,
ezta erreza alako egun
andiakin aiztutea.
- 16/ Bikotxa gendun egun orretan
izan gendun banketea:
bizitzan artu lagun onena,
bestetik txokolatea;
ez daigun itxi ezegaitiño
Jesustxo lagun maitea,
berak daki-ta munduko bide
eta zeruko atea.
- 17/ Guk euki gendun maixu jaun ori
izan zan geure erriko,
baiña gu beti egon gintzazan
beste bat noz etorriko.
Gutzat bai eukan gogortasuna,
emon ainbat belarriko,
baita entzun be sarri askotan
salvaje eta *borrico*.

18/ Bein eskolatik iges egin da
ostontzen bagoian sartu,
eta besteak urten orduko
bagoi ortan loak artu.
Bagoi au martxan jarri zanean
salto batekin itxartu,
gero etsera joan nintzanean
belarri biak apurtu.

19/ Eun eta geio izan gintzazan
mutiko latzak eskolan,
egia esan, maixu batentzat
kontatzeko be neiko lan.
Erderarik guk ez gendun eta
euskera ezin iñolan,
gutzat bardin zan txoriak uger
eta arrañak arbolan.

20/ Euskalduna zan gure maixua
geure errian jaiota,
baiña euskeraz irakastea
Gobernuak galazota.
Ekin ta ekin igarri barik
España'r tranpan jausita,
errukirikan etzuan artzen
gu esklabo ikusita.

21/ Amairu urte betetutean
«Eskola, Jainkoa lagun!»
emen jausi ta arago jaso,
dividir ikasi gendun.
Guk, euskaldunok, gogortasuna
guztirako zelan dogun,
bost urte t'erdi erderapean
ta urten gendun euskaldun.

22/ Nire lelengo jolas-leku zan
Zulai ibarreko landa,
ta mendizale ein nintzanean
Gorbaie eta Lekanda.
Gero gerra ta iskimiliak
eroan nindun enbanda,
baiña erria eneban aitzu
barruan euki neban-da

23/ Zazpi anai ta arrebatxo bi
etorri giñan mundura,
ta zoritxarrez etzan gurea
geu jaio gintzazan lurra.
Danontzat ezer ez zala eta
geure etseko apurra,
au zan tamala egin bearra
derrigorreko agurra.

AMA TA SEMEA,
ANAI ZARRENA, MARKOS,
1926 URTEAN
AFRIKA'RA JOAN ZANEAN

Oneik dira, amak eta semeak alkarrekin egin ebezan berbak, agur egitean...

Kortako ate ondoan izan zan alkarrizketa ori, eta neu bere antxe nengoan, ixilixillik baiña dana entzuten.

Andik ondo etorri zan anai ori, ta orain dala iru edo lau urte il da, Lemoa'n, an bizi zan eta.

Oneik dira nik lenengo idatzi nebazan bertsoak. Orregaitik, ez dira onak izango. Baiña Zeanuri'ko erriak bere ikasi ta kantatzen ebazan.

Ori alan izanik, ez dot gura izan aldatu edo konpondu ezer bere.

Ni orduan, bertso oneik jarri nebazanean, amasei edo amazapi bat urteko mutilla nintzan.

Amak:

1/ Agur egiten emen semea
amaren aldamenean,
sabel barruan sortua eta
azia bular ganean.
Urte askotan bera azteko
tarraka beti lanean,
orain gudara daroaztie
sasoirik ederrenean.

2/ Amurruagaz beterik da-ta
mundu onetako lurra,
gudate onek emoten dausku
negargarrizko bildurra.
Bearbada au izango da-ta,
semetxo, azken agurra,
biotzak alkar batu ta artu
amaren laztan samurra.

Semeak:

3/ Badakit, ama, alde egikera au
zuretzat dala gogorra,
ta neretzat be oso astuna
era onetako lorra.
Ni enintzake ara joango
ezpalitza derrigorra,
joan ezean artuko neunke
neurrik bako zigorra.

Amak:

4/ Badakit derrigor zoiazala
orrelan zoiazanean,
beti ibili, semetxo maite,
aginduen esanean.
Sorbaldin kutun jarri egizu
zeure bularren ganean,
Karmengo Amak zaindu zagizan
arriskuan zaranean.

5/ Zu dotriñara joaten ziñan
ziñanean mutikoa,
eta ez aitzu abadeagaz
orduan ikasikoa.
Gogoan euki, txiki ziñala,
aitaitak kantatakoa:
euskaldun dana beti izan dala
kristiñau benetakoa.

6/ Biotzaren zain bere atean
jarri emen ikasia,
munduagaitik bere ez galdu
Jaungoikoaren grazia.
Bere adiskidetasunean
galtzen badozu bizia,
gero zeruan emongo dautsu
munduan irabazia.

- 7/ Eta batez be ez eizu aitzu
eguneroko otoitza,
une danetan bear dogu-ta
Jesus Jaunaren laguntza,
bere antzera eroan daigun
eroapenez kurutzta,
ortik bakarrik lortuko da-ta
zeruetako baratza.
- 8/ Biotzetikan zuzena eta
kontzientzidun izan zaitez,
bide zuzena artu egin ta
bertatik jarraitu artez.
Zure amatxok diñotzun legez
baldin bazara izatez,
onespen ona artuko dozu
zintzotasunen bitartez.
- 9/ Munduan kalte asko dagoz gaur
arrokeriak egiñak,
beste ainbeste egiten ditu
alkar ikusi eziñak.
Iñoiz ez deitsuela gidatu
arro ta buru ariñak,
burua eta txapel-lekua
ez diralako bardiñak.

10/ Danok bagenki zer dan seme bat
bular ganean aztea,
gudea asi baño lenago
eingo leukie bakea.
Amak bakarrik dakien legez
zer dan ama izatea,
beretzat ain min ezta iñontzat
seme bat eroatea.

11/ Munduak enau poztuten eta,
Birjiña, nator zeugana,
zu zaralako atsekabe ta
nekalditarraren Ama.
Barruak ezin artu-aleko
miña bada nik dodana,
zein izango zan ama guztien
Amak igaro ebana?

Semeak:

12/ Emen entzunda esan dauzanak
nire amatxo kutunak,
ikusten nago latzak dirala
munduko etorkizunak.
Alkar il barik dira labur-ta
mundu onetako egunak,
il ta epaitu egin gaizala
bizia emon dauskunak.

GERNIKE ERRETZEARI

- 1/ Bertsolaria beti daukagu
egien alde lanean,
egi zuzena ipini nairik
guzur guztien ganean,
eta batez be kaluni zarrak
bitarteko diranean.
Olako ainbat jazo zan eta
Gernike erre zanean,
egi au argi jarri gura dot
erriaren izenean.

- 2/ Millaz ganera bedratzireun ta
oge ta amazazpian,
Apirillaren oge ta seian
eta bere arrastian,
gure Gernike agertu jakun
suzko lañoen azpian,
deabru zarrak ekarri eta
inpernutikan ispian,
ainbestekorik ez zan ezautu
munduko istori guztian.

- 3/ Gerra asita Otzandiotxo
apurtu eben lenengo,
ori etzala neikoa eta
birrindu euskun Durungo,
eta Gernike maitagarria
kiskaldu euskun urrengo.
Nai-ta etorri Luzifer bera,
Hitler, Franco, nai Bikingo,
uste genduan ainbestekorik
iñok etzula egingo.
- 4/ Gure Gernike erre zanean
ondoan izan gintzazan,
ta urreratzean agure batek
auxe egin euskun esan:
«Gure Gernike eztago emen,
Gernike emen egon zan!»
A ikusirik, arriturikan,
biotza apurtu jatan,
ta pentsa neban Juizioko egunen
abisuren bat ete zan.
- 5/ Peri-egunez gure Gernike
bonbardeoan apurtu,
eta barruan izan ziranak
eskonbro azpian sartu,
baita igesi joan ziranak
erbi lez ametrallatu.
Ain zan kriminalkeri andia,
munduak ezin sinistu,
neuk be eneban sinistuko-ta
neuk ikusi ez banitu.

6/ Lenengo dana apurtu eta
gero erre ta birrindu,
gañera esan: «Guk ez dogu egin,
ori Agirre'k egin du».
Sagraduena geuri erre ta
oindo kaluniz iraindu,
baiña egi au argitan dago,
iñok ezin dausku kendu:
gure Gernike etzan erreko
abioirik euki bagendu.

7/ Bonbak bota ta il ta kiskaldu
andra eta ume txiki,
lotsagarririk aundiena da
Cruzada dala atxaki.
Obispoak be etziran danak
an jazoaren erruki,
obispo orreik sinistu ez arren
Jaungoikoak ondo daki,
nai-ta Luzifer il bear izan
aik erru ez eben euki.

8/ Andra ta ume zerura deika
eskonbroz atrapatuta,
Garbitokiko arimak legez
besoak gora jasota.
Bonbardeoa gelditu barik
oindo suzko bonbak bota,
istorian au ezta izango
iñoz ondo azalduta,
an jazo zana idatziteko
izkuntzarik eztago-ta.

- 9/ Elizak bere ez zitun euki
orduan aldi errezak,
gaiztoarekin ein ziralako
alkar zaintzeko promesak.
Munduan zear bialdu eta
kaluni zar aldrebesak,
indartsu diñot: Etzun errurik,
ez, egiazko Elexak,
errudun ziran obispo batzuk
etziralako artezak.
- 10/ Mundu guztia arritu eben
ango oiu ta negarrak,
baita argitu laño guztiak
an izan ziran su-garrak.
Franco bera be arritu zan ta
aren guzurtu bearrak!
Azkenez esan izan zirala
Alemania'ko txarrak,
bai, alemanak izan zirean
baiña danak Franco'tarrak.
- 11/ Gerra orretan jarri genduan
mundu dana arriturik,
iru nazioi eutsiagatik
larogei milla gudarik,
eta augatik larri gengoan
danok eskomulgaturik.
Jakin daiela munduan diran
obispo nai agintarik:
guri bakean isten dauskunak
gugaz eztauko gerrarik.

- 12/ Fazistak ziran otsoak eta
Euskalerrria bildotsa,
eta Gernike maitagarria
Euskalerrriko biotza,
eta otsoak biotzeraño
sar eutsan agin zorrotza.
Itzal-itzala izan arren be
kriminalen odol otza,
aginkadaka ezta lortuko
erri baten eriotza.
- 13/ Gerra orretan jazo zirean
ain gauza negargarriak,
emen genduzan italo, aleman,
gure aurka ekarriak,
txarrak guztiak ekartearren
eurakin moro txarriak.
Guztien aurka egiarekin
gure eusko gudariak,
jakin daiela gu ez giñala
ez zuri eta gorriak.
- 14/ Istori baltza idatzi dausku
igaro dogun garaiak,
egi zuzena zapaldurik ta
indarrrik ez errazoiak.
Aorik bere ezin zabaldu
jaun jakitunaren doiak,
lurrak guztiak odolgorritu,
negarrez bete ibaiak,
kultura eta jakituria
ebagi zitun kañoiak.

15/ Bonbak botatzen egazkin zarrak,
–guk deitzen geuntsen tranbiak–,
iru orduan joan-etorri
nai eben ibiltaldiak.
Millakak kilo erabilteko
aiek ez ziran euliak,
aidean jaurti kale ta etse,
idiak eta zaldiak,
orrekin baidau zegaz lotsatu
ogeigarren gizaldiak.

16/ Orra amazazpi bertso barri
egi utsakin beteak,
egi-lekurik bete al badau
ikusia esateak,
istoriari zabalduteko
egi argizko ateak,
kaluni zarrak egin eztaizen
egien aurka kalteak,
egi garbi au merezi du-ta
gure Gernike maiteak.

BILBO'KO MISIÑOIAK

1955'garren urtean, ogetaka urte olan-
gorik entzun barik egonda, Bilbo'ko San
Juan elizan misiñoi agurgarri, zoragarri ta
pozgarriak entzun da gero.

- 1/ San Juanen giñan misiñoietan
aste bete bat an dala,
urtero beintzat sendotuteko
gure arima argala.
Udabarriak eiten daben lez
biztu lurraren azala.
Garizumako misiñoi oneik
danok barriztu gaizala.

- 2/ Baimen barik naz bertsoak jartzen
euskal misiñoiakgaiti,
eta parkatu, Aita Agirretxe
ta Aita Anasagasti.
Sermoi ederrok entzuteko guk
ez dogu erea beti,
Kristoren berbak entzun genduzan
geure oitura ta guzti.

3/ Euskera eta Euskalerria
Jainkuarenak dira-ta,
misiñoi orreik entzun doguz guk
itz ta lurragaz besarka.
Euroi entzunaz ikusten ziran
negar-malkoak tantaka,
sermoi gozo ta bigunarekin
gure biotzak ganazka.

4/ Apostoluai agindu eutsen
Jesukristo gure Jaunak
erri-izketan azalduteko
Berak esan ebazanak.
Eun da lau milla inguru gara
Bilbo onetan euskaldunak,
geure izkuntzan entzun gurarik
Jesusek esan zitunak.

5/ Begira zelan aurkitzen garan
zori txarrez euskaldunak:
erarik barik ospatuteko
euskeraz eleizkizunak.
Galdu zirian otoitz eiteko
gure erreztasun danak,
tamal au zer dan ez daki ondo
euskaldun jaio eztanak.

6/ Lan asko dago mundu onetan,
bakotxak dogu berea,
euskal apaizak zaindu bear dau
euskaldunaren fedea.
Astero beintzat entzun, al bada,
Jaungoikuaren berbea,
guk beintzat errez ez dou galduko
au entzuteko erea.

7/ Fraile jator ok zainduko zeunke,
oso gatxa ezpalitza,
euskaldunaren fede bizia,
oitura eta izkuntza.
Bizi apur bat badogu baiña
lotuta dogu biotza,
eta biotza gelditzen bada
bertan dogu eriotza.

8/ Ezen errurik ez dogu-eta
euskaldun jaioagaiti,
biotz-biotzez otoitz eginda
eskatu daigun gogoti:
gizonarentzat bialdu daian
Jaunak argia zeruti,
agintariak izan daitezcan
erru bakoan erruki.

(1956)
AITA MARTZELERI

- 1/ Nire izena Basilio da,
apellidua Pujana,
Zeanuri'ko semea eta
gaur Bilbo'n bizi nazana;
eta berori zorioneko
pasionista Martzel jauna,
bertso batzuek jarriko'tsodaz
emoten badeust baimena.

- 2/ San Juan'eko misañoietan
aditu neuntsun lenengoz,
ai ze misañoi gozo ta garbi
entzun nebazan nik gogoz;
Elexea ta Euskalerria
bear izanean dagoz,
baiña bata be ezta erruki,
zu lako asko balegoz!

3/ Onen ondoren artu neban nik
zure bertsoen papela,
eta orduan igarri neuntsun
fraile bikaiña ziñala;
txorta eder ta egiazkoa
antxe bai ikusten dala,
zelan ibili irabazteko
betiko zero zabala.

4/ Sermolari bi izan ziñien,
Eleuteri zeure lagun,
zuretzat bikotx benetakoa,
a be gogoratu daigun.
Ai ze ederrak bere sermoiak
polito, gozo ta bigun!
Zuori eskerrak garbitu giñan
gu makiña bat euskaldun.

5/ Ezagutu ta ordutik ona
ez deukotsut aitzuteko,
erreguz nago Jaungoikoari
munduratu zaitulako,
osasunagaz bizi zaitezcan
lur onetan urte asko,
zure altasun dana dalako
gizonaren onerako.

- 6/ Gaube illun bat igaro gendun
ogei urteko luzea,
aldi orretan gure barruan
goxaldearen gosea!
Zubieta anai fraile zintzoak
zabaldu eben atea,
goxalde argi zoragarria
gutzat igazko urtea.
- 7/ Ainbeste urte egon giñean
samintasunez beterik,
Bilbo onetan ez egoala
euskerazko misiñoirik;
gu sendatzeko ez egonikan
euskerea baiño oberik,
gaur au da poza, emen daukagu
len legez bizi-bizirik.
- 8/ Misiñolari biori agur,
agur, beste bat artean,
Jaunari eskatu izan gaitzan
osasun eta bakean;
alegiña egin gu ez jausteko
diabruaren erpean,
amaganatu gaizuez danok
gorde gaizan magalpean.

AITA SANTU PIO XII'GARRENARI
ILTORDUAN ¹

1/ Il-kanpaeak entzuten dira,
il jaku Aita Santua,
Elexearen buru bakarra
ta Kristoren ordezkua,
mundu guztiko gizon guztien
Aita samur ta gozua;
egun oneitan beretzako da
gure negar ta mosua.

2/ Odoitorra ta trunboi artian
igaro dauz ogei urte,
gizonak biotz illunagaz ta
mundua amorratute;
baltzak, zuriak, onak, gaiztuak,
ta berak guztiak maite,
begiratu ba bera kenduta
nor dan orrelako Aite.

¹ Pio XII Aita Santua, 1958-X-9'an il zan.

3/ Aita ilteak ze gauza asko
ekarri deuskuz burura,
batzuek pozez geio eziñik
joan dalako zerura,
beste batzuek il jakulako
pena ta negar samurra,
gaiztoak barriz guztiz artega
ezin kenduta bildurra.

4/ Jauna, emioizu il dan Aitari
zeure zeruan lekua,
beste artzain bat emon eiguzu,
Jaungoiko errukitsua,
il baiño lenao sendotu daiten
otso arteko artxua,
indarra emonda bildostu daien
pizti txar amorratua.²

² Bertso oneik, *Euskal-Kantak* liburuxkan argitatu ziran, Bilbo'n, 1959'an.

(1959)
BERTSO BARRIAK
PUJANA'K JARRIAK

- 1/ Bostak aldean agertu giñan
guztiok Arenal'era,
ames gozo bat zan niretzako
egin euskuen arrera.
Ikusiagaz millaka euskaldun
danak txaloka batera,
nire biotza ganezka neukan
umetxo baten antzera.

- 2/ Elortza jauna be an egon zan
bertsolarien aitona,
euskaldunaren gorputz osoa
goitik beraiño daukona.
Jaun Zerukoak emon deiola
luzaroko osasuna,
eta urteok igaroteko
bakea ta zoriona.

3/ An ikusi zan bizirik dala
oraindiño Euskalerria,
ta egun orretan zabaldu zala
txaloaren iturria.
Anasagasti Obispoa be
gure artera etorria,
bero-berotan txalotu eben
dalako txalogarria.

4/ Bear izana badauko baiña
Euskera Ama laztanak,
maitasun asko erakutsi dau
leku atan egin zanak.
Gure izkuntzari eutsi egiteko
bear dira indar danak,
ilgo jakula eztabe esango
entzule egon zireanak.

5/ Gure euskera maiteagaitik
zerbait egin al dauenak,
ez itxi iñoz urrengorako,
ondo jakin, euskaldunak.
Ama Euskera ilten bajaku
danok gara errudunak,
andi ta txiki guztiok baiña
batez bere jakitunak.

- 6/ Enbeita gure txapeldun aita,
deutsut dedu eta lotsa,
baimena bear zuzenduteko
zuri bertsoz nire otsa.
Artzain ondoan poztuten danez
gure mendiko bildotsa,
neuk irabazi baneban legez
poztu zan nire biotza.
- 7/ Euskalerriko seme guztiak
biotzez anaiak gara,
banan gabiltzan guztiok batu
familiako bakera.
Artzaiñak esan oi daben legez:
«Bildu artalde batera»,
guztiok bildots egin dagigun
ta artzain Ama Euskera.
- 8/ Jaunak diñosku bat egiteko
gure euskaldun familia,
Euskaltzaindiak kendu deusku ba
bitarte geunkan mendia.
Oso dalako txalogarria
egin dauen lan andia,
euskaltzaleok txalotu daigun
Bilbo'ko Euskaltzaindia.

- 9/ Txapelketea amaituteko
trabatxo bat izan gendun,
ta orregaitik atzeratu zan
izentautik zortzi egun.
Baiña errazoirik ez zedukana
jarri zan makur ta bigun,
orain or dira Enbeita eta
Euskaltzaindia txapeldun.
- 10/ Agur, anaia biotzekoak,
eta agur, bertsolari,
egun orregaz ez gara aitzuko
Pujana ta Zeanuri.
Gogo onagaz biotz-biotzez
eskatu goiko Jaunari,
onetariko egun gozoak
emon deiskuzan ugari.¹

¹ Bertso oneik, moldiztegi-izenik gabeko bertso-papeletan zabaldu ziran.

BELJIKA'KO ERREGIÑARI

- 1/ Andra Fabiola, asko poztuta
zure ezkontzaren barriak,
sakonetikan agurtzen zaitu
biotzez Euskalerrriak.
Bere barruko poza artuta
diñotsu bertsolariak:
opa deusula bide zuzena
ta zorion ugariak.

- 2/ Jaiotzaz zara birtutearen
itxaso baten jausia,
zorioneko emakume bat
argitasunez azia.
Zure gaiñera jatxi da orain
errege baten grazia,
maitasun eta apaltasunen
birtutez irabazia.

3/ Mundu onetan jatorriz dogu
atsekabe ta samiña,
au gozotzeko ezta naikoa
mundutarren alegiña.
Erreguz gagoz zerutik lagun
izan dagizun Birjiña,
bere laguntzaz izan zaitez
benetako erregiña.

4/ Beljika, sarri isuri dozu
negar-malko ta odola,
emakume au izan daitela
zure Aingeru Jagola.
Birtute utsa artua dozu
erregintzat, Fabiola,
izarra legez dizdiratsu ta
maitasuna dariola.

5/ Kriston aginduz Apostoluak
egin ebien antzera,
errege jauna ikasten doia
erdera eta euskera.
Eta ori da uda aldean
etorteko Zarautz'era,
zuek artzeko pozez gagoz ta
etorri zeuen etxera.

JUAN AZPILLAGA'RI
BERE EZKONTZAN
(1960-X-8)

- 1/ Zuk esan barik jakin dot zelan
estadu artu zenduan,
ta zorionak opa deutsudaz
nai-ta zerbait beranduan.
Olango gauzak eztira-eta
egun danetan munduan,
zure ezkontzaz akordatzeko
aurrez jakin bear nuan.

- 2/ Ezkontz-berbea aitatu gendun
guk lenagoko batean,
ta esan zendun zelan zengozan
bertan sartzeko atean.
Enbeita'gandik jakin dot zelan
egin ziñan lengo astean,
gauza orren barri eneban izan
lagunak esan artean.

3/ Lagun Enbeita emen egon da
uste dot eguenean,
Juan Ibarzabal etorri jatan
irugarren egunean.
Ta esan gendun, zure ezkontza
aitatu genduanean,
erregalu bat zuri egiteko
guztioaren izenean.

4/ Bertso-lagunak au egitea
ondo dozu zuk merezi,
bost ogerleko ordaindu arren
batasuna irabazi.
Erregalu au izango da-ta
nire lapiko «Egosi»,
bein emen kantau zenduan legez
eztozu zetan erosi.

5/ Itxurazko da zure andrea,
liraiña ta zentzunduna,
eta gaiñera besten buruak
ondo apaintzen dituna.
Zu zara barriz zintzoa eta
bertsolari jakituna,
bedeinkatua izan daitela
zuen kabitxo kutuna.

6/ Zuen artean gauza illunik
sekula eztaiteen jazo,
pazientziaz bide onera
alkarri etorriazo.
Bizi onetan izan zaitezen
alai, argi eta gozo,
Kriston legean gogoz egizu
zintzo senar ta guraso.

(1962)
TXIRRITAREN OMENALDIAN

Txirrita bertsolariari omenaldia egin jakon Ernani'n, bere jaioterrian.

Baita beraren izena kale bateri ipiñi bere.

Kale aretan Txirritaren izena agertu zanean, erriko abade batek egin eban berba-aldi bat; eta jarraian bertsolari billa ta eske asi ziran.

Baiña an jazo zan, amabi bertsolari an egonik meza nagusian ta gero plazan danok kantatzeko, agerkundera, plazatik albo izan zan lez, bat bere etzala joan.

Ni ezer ez nenkiala joan nintzan, Aita Julio karmeldarrarekin.

Orduan, ni an ikusirik, Antonio Arrue zanak eta Alfonso Irigoien'ek eskatu eustien zerbait kantatu baneuke.

Onela kantatu neban:

- 1/ Poz andiagaz ikusten dabe
gaur emen neure begiak,
beti ez arren, badaukalako
oindo indarra egiak,
Txirrita jauna aintzatuteko
aurretik agintariak;
Jaunari eskerrak aldi ontan be
badaukaz Euskalerrriak
bide zuzenai jarraituteko
agintari agurgarriak.

- 2/ Txirrita gendun soñu alai bat
bere bizitza danean,
orregaitiño santuak legez
andi ein zan il zanean.
Jaioterriak gaur ipinten dau
seme guztien ganean,
bertsolari au izentatuta
kalerik ederrenean;
Ernani maite, eskerrik asko
Txirritaren izenean.

- 3/ Bertsolaria argitzen badau
biotzak eta buruak,
berak esanak eztauz ordaintzen
txaloak eta diruak.
Ezautze'eztana azaldu eta
alaitzen dauz inguruak,
gure Jainkua aintzatuteko
daukazan legez zeruak,
bertsolariak dira munduan
erriaren aingeruak.

(Andik egun batzutara, iru bertso oiek bialdu zizkidan Basilio Pujana'k korreoz, le-
rro auekin batera:

«Aita Zabala jauna, agur:

Tamal andia zan ako Ernani'n, kale barri
aretan gure goitik berañoko bertsolari zan
Txirritaren izena argitaratu zanean, Euska-
lerriko bertsolaririk onenak bertatik alde
egotea. Une aretan izango ziran egokienak
bertsolariak esan al leikezan bertso-eta
onenak. Ni, bertsolari baiño bertsozale an-
diagoa, badakizu bakarrik nintzala eta
bertsotxo bi abestu nebazala. Baiña ori
etzan neiko, tamalez. Manetofonik etzegin
lez ango berba ta bertso artzeko, gitxi
gora-bera karta onetan bialtzen dautsuda-
zan iru bertsoatik bi ziran, lenengoa ta iru-
garrena, une aretan abestuak. Bigarrena
be ederto etorriko zan, baiña gero asmatua
da. Zeuri badaretxazu, badaukozu eskubi-
dea nai dozuna egiteko bertso orreikaz.
Geiago barik, mun egiten dot zure eskua.
Aurrera. Agur: B. Pujana».

Eskutitz au ere emen agertu bearra zala
pentsatu degu. A.Z.)

BERTSO-PAPELAK

1/ Gaur baserrian leiduten dira
tebeo eta nobelak,
bertsolariak garealako
eskribitzeko epelak;
len bertsoakaz saltzen zirean
pipa ta neurri-kordelak,
nik olangorik eztaukat, baiña
badodaz bertso-papelak.

2/ Bertsolariak biotza eta
burua argi baditu,
nobelak baño egi obeak
bertsotan esaten ditu;
kantari iñoz entzuten bozu
gogo onagaz aditu,
eta papelik saltzen badauko
artu barik ez gelditu.

- 3/ Estudioak egiten ditu
gizon andi ta aldunak,
ori barik be baditu andiak
gure erri zar kutunak;
bertsolariai entzun gurarik
dagoz gure jakitunak,
sarri esaten dituelako
liburuak ez ditunak.
- 4/ Lenengotatik esaten noia,
erosle, zeuk dakizuna:
mundua txarto dagola eta
txarrago etorkizuna;
jakituriak andiak dira,
urria argitasuna,
jainkokeriak egin gurean
galdu da gizontasuna.
- 5/ Jakituria gauza ederra
baldin badago zentzuna,
baña ezpadago askozaz obe
jakituririk eztuna;
gauz onak egin al izan eta
txarrak egiten dituna,
zoritxarrean gizon ori da
zentzun bako jakituna.

6/ Gerraterako armak probatzen
dabiz milloiak erretan,
eta gizonak goseak ilten
munduaren bazterretan;
urrengo gerran jarriko dabe
lur guztia su-garretan,
orra or zer dan jakituria,
badago esku txarretan.

7/ Gizonarentzat tamalgarria
bide txarra artutea,
eta txarrago ori jakinda
bertatik jarraitutea;
gizon-bidean auxe daukagu
benetako birtutea:
jakituri ta al izateak
onera biurtutea.

8/ Andiak bere gogortz'ezpaitu
zintzotasunen esiak,
argi andirik ezteutso egingo
jakin ta irabaziak;
bada gizona argitz'ezpadau
Jaungoikoaren graziak,
San Iñaziok esan eban lez:
zer balio dau biziak?

- 9/ Aita Santua prestetan dago
Batzar Ekumenikoa,
agintariak noz dabe egingo
bakeen alderdikoa?
Anai artean naste barik be
badago traba naikoa,
bear dan legez maitatuteko
Jauna ta lagun urkoa.
- 10/ Itargira be egin nai dabe.
orain joan da etorri,
gauz ori zeñek lenago egin
or dabiz zuri ta gorri;
arrokeri ta fanfarroikeri
botatzen deutsez alkarri,
baña zarrentzat gaztetasunik
iñok ezin dau ekarri.
- 11/ Gizonarentzat jarrita dagoz
munduan amar agindu,
ta orreik zuzen betetuteko
Jaunak ein zun adimendu;
txakurrak bere gizonak baiño
zintzoago betetzen du,
lotsagarria gizonarentzat
txakurraz ezin bardindu.

12/ Mundu au dogu gizonarentzat
atsekabe ta samiña,
baña apur bat onduko geunke
alkar maiteak bagiña;
nai dana euki, nai dana egin,
ezin lortu atsegiña,
bakarrik da ez damutzekoa
alkarri ondo egiña.

13/ Mundu oneri ondo begitu
etorreratik asita:
billos-billosik egiten jako
asierako bisita;
ta gero barriz, nai-eta bizi
urregorriaz jantzita,
urteerea egin bear da
guztia bertan itxita.

14/ Bake santuan jagon gaizala
Jaungoiko alguztidunak,
auxe da gauza eskatzen duna
gizon borondatedunak;
gerratan alkar il barik bere
kontauak dira egunak,
il ta juzgatu egin gaizala
bizia emon deuskunak.

15/ Bat edo bestek esango dabe:
oba banengo ixilik,
danari parka eskatzen deutse
gaur Pujana'tar Basilik;
etxe bat dauko bosgarrenean
Bilbo'ko kale Tivoli'k,
antxe nozue danok artzeko
ate ta beso zabalik.¹

¹ Bertso oneik bertso-papeletan argitaratu ziran lenengo, 1963 urtean. Eta ondoren, Naparroa'ko *Príncipe de Viana* aldizkarian, 1972 urteko uztailla-aboztuan.

LEGEZ KANPO

1970'ko urtean, Martxoak 22, irakurri neban *Zeruko Argia*'n Basarrik *Nere Bortaxotik* idatzita, zelan izango zan Xenpelar sariketa, eta onela zion:

«Bertsojartzailleok, entzun!

Aurtengo «Xenpelar Sarian» parterik artu nai badezute, zuen lanak apirillaren amargarren egunerako bidali bear dituzute.

Nora? Zuzenbide ontara: *Academia de la Lengua Vasca. Palacio de la Diputación. San Sebastián.*»

Eta beste kondiziorik ez.

Nik, gaiñera, Bilbo'ko Euskaltzaindira dei egin neban, parte artzeko zer eta zelan egin bear zan.

Bertako erantzuna izan zan, iru ale bialtzeko apirillaren amarra barru zala, eta neiko zala.

Gero, olantxe eginta, erantzun eustien enebala bete legea; bearrezkoa zala aurrez argitaratzea nunbaiten. Eta, atxaki geiago barik, legez kanpo nintzala.

Gero jazo zan, Olea'k berak esanekotik, bereak saritu zirala, baiña bera etzala gogoratzen bertso areik berak bidali zituanik.

Orretzaz ateratako bertsoak dira onei-xek:

1/ Sariketa bat aitetu eban
gure *Zeruko Argia*'k,
eta bertara bialdu nitun
nik nere bertso barriak,
uste osoan aixek zirala
lege edo oiñarriak;
baña itxuraz enitun bete
parte artzeko neurriak.

2/ Euskaltzaindira dei egin neban
parte artu nai nebala,
ta laguntzeko iskindu jatan
Bilbo'ko ofiziala:
Amarra barru sartu ezker
orixe neikoa zala,
iru bat ale bialtzeko ta
berak egingo ebala.

- 3/ Zenbat bear zan itandu neban.
«Iru ale dira neiko,
iru bakarrik direalako
eurtengoan epai-maiko».
Zer errazoi da errebistatan
aurrezdik agertuteko,
bertso-papelok ezpadirade
erriak epaituteko?
- 4/ Andik lastertxo parte artuen
lista zan argitaratu,
parte artuen izen artean
nererik etzan agertu.
Bizkaia'k ez du parterik edo
ondo ez al dira sartu?
Idatzi neban bear nebala
satisfaziño bat artu.
- 5/ Donostia'tik etorri jatan
erantzun apain, apala:
plazu barruan sartu arren be
legez kanpoan nintzala;
parte artzeko plazu aurretik
argitu bear zirala.
Agindu zan lez egin da gero
ez da erantzun makala.

6/ Karta aretan au ikusten da,
ta itxuraz irriparrez,
karta polita bertsoan baña
bape errazoirikan ez.
«Zuk ez daukazu errazoirikan»,
au esaten dozu errez;
ez uste gero nik eindakoa
egiña dodala ames.

7/ Ai, lagun, zure karta orretan
argirik ez dot aurkitu:
ez daukadala errazoirik ta
berbatxo bigaz amaitu;
legea zeugaz dagoala ta
olan biotza nasaitu,
zure biotza ez da makala
orrek nasaitzen bazaitu.

8/ Martxo barruan idatzi eban
oiñarri ori Basarrik,
ta an ez diño bertso-papelok
aurrez argitu bearrik.
Zuzenbidea eta plazua,
orixe diño bakarrik,
amar bat bider irakurri dot
ta an ez diño besterik.

- 9/ Amarra plazu izan ezkerro
bederatzia barru zan,
Apirillako illea eurten
atzekoz aurrez ezpazan.
Bilbao'n ontzat artutakoa
Donostia'n txarto bazan,
or konpon, Bilbo eta Donosti,
zeuek daukazuen saltsan.
- 10/ Ain errazoitsu ez dot ikusten
bertso-papelen kontu au,
era ontara bertsoak jartzen
gaur orrexek beartzen nau.
Sariketa bat irakurleak
baldin neurtu bear badau,
epai-maikoak sobra daukaguz
iru izan nai izan lau.
- 11/ Zuk diñozun lez, epai-maikoak
betetu bear legeak,
ortan jakizu zer esan eban
bere aotik Oļea'k:
berak etzitula sartu iñon
sartu ziran aleak.
Nortzuek izan ete ziran ba
bere mesede-zaleak?

12/ Gizonak jartzen ditun legeak
akatsak dadukaz sarri,
eta geiago barruko danak
ez badaki bere barri.
Itxura dan lez, zuen legerik
Bilbo'ra etzan etorri,
lege barririk Bilbo'n ez bazan
izan barik ezin jarri.

13/ Zer egin ondo jakin baneban
nik eneukan ezin alik,
gizonena da erratutea
esanda dago isilik.
Orregaitiño parkeske diño
Puxana'tarra Basilik,
ta emen nozue danok artzeko
ate ta beso zabalik.

MUNDUKO PASADIZUA

- 1/ Mundu ontako pasadizuan sarrera da jaiotzea, norbere ardurari igaro eta urteera eriotzea; bere ostean zerua dogu gure betiko etsea, zentzun bakoien itzal andia pasadizuan galtzea.

- 2/ Jaunak gizona ipini eban munduko bizi-ontzian, zerua bertan irabazteko eta denpora gitxian; zorion utsa gura dabenak ona nere eretxian: lagun urkoa maitetu eta ibilli kontzientzian.

3/ Mundu onetan sortzen dan danak
eriotzea dauko zor,
eta sortzean bertan asi ta
geugana bidean dator;
egin bear bat daukagu danok,
kontua euki daigun or,
galdu leike ta egin bear au
egin baño len badator.

4/ Arima dauko gizonak eta
ez da pizti aberea,
ta arima au ez salbatzeak
emon leike ikerea;
ez daigun galdu mundu onetan
au salbatzeko erea,
arima emen salbau bear da
eta bakotxak berea.

5/ Ondo gogoan euki bakoitxak
Jesusek sarri esana:
eriotzean larrituko da
bizitzan zintzo ez dana;
orregaitiño zintzo izaten
bizitzan egin al dana,
eriotzean ezingo da-ta
bizitzan ein bear zana.

6/ Gizona danak egin bear dau
zentzun-legeak diñona:
norbere gauzak maitatu eta
errespetatu iñona;
gizon andia baño lenago
izan bear da gizona,
eta gizona ez da izango
birtute au ez daukona.

7/ Gizon guztiok egon nai dogu
eurki andi ta altuan,
eurki altuan egon ezkeru
aundiak garalakuan;
baña gizonak anditasuna
bai dauka bere eskuan,
zintzoa dana aundia da ta
aurkituten dan lekuan.

8/ Txikia danak egiten badau
berak al daben danetik,
aundia bere geio egin arren
ez dago orren ganetik;
gitxiago be izan leiteke
geiago eginagaitik,
azken epaia izango da ta
altasunaren neurritik.

- 9/ Gaur itargia lortuta dago,
urrengoa ei da Marte,
artega gabiz zorion utsik
iñon ezin aurkitute;
zorion utsa bakarrik dan lez
mundu ontatik aparte,
zorion utsik ez da lortuko
il eta berbiztu arte.
- 10/ Andi arroak bere azkenez
au eiten dabe sinistu:
zoriontzeko ein bear dala
lenago il ta berbiztu;
mundu onetan gizonak beintzat
gauzatxo bi ezin ditu:
lortu betiko bizia eta
mundua zero biurtu.
- 11/ Itsu garabiz aurrerapenak
batetik eta bestera,
eta geiena errebotean
jatorku geure kaltera;
argi-izpi bat sartu daitela
jakitunaren artera,
aurrerapena eta zentzuna
eroateko batera.

12/ Bai da negar ta atsekabea
emen mundu saminduan,
gizonak bizi nai ez dulako
Egillean aginduan;
nor da gizona bere kontura
aginduteko munduan
gu sortu baño lenagotik be
emen izan bagenduan?

13/ Kantari alai agertzen jaku
egunsentian txoria,
Egilleari iskinduteko
daron frutu ugaria;
gizonak bere egin bear dau
otoia ta oparia,
au eite'ez duna artuten dago
merezi ez dun saria.

14/ Okerrerako erreztasuna
jatorriz zelan datorren,
zetzunezko dan lege zuzen au
egiten jaku gogorren;
ta bearbada neuk idatzi ta
neu ibilliko naz txarren,
baña egia beti esan leike
norberak egin ez arren.¹

¹ *Zeruko Argia* 1970-X-11 eta *Príncipe de Viana*
1972, V.

BIOTZA SAMUR

1972'garrenean, Gorniz'ko gaixo edo osa-etxean izan giñan Erregeen egunean, eta an ikusi nebanagaitik bertso batzuk jarri nebazan, ta oneixek dira:

- 1/ Erregetan joan gintzazan
Gorniz'ko gaixo-etxera,
ume gaixoak alaitu nairik
Erregeekin batera.
Ain zan samurra jai eder au ta
sartu jatan biotzera,
bera bertsoan jarri nai neuke
ezer al badot atera.

- 2/ Erronda'n dogun ikastolako
umetxoak soiñulari,
Belen'en sortu zan izarra lez
Erregearen gidari,
gozoak eta poza emoten
Errege jaunak danari,
ikusi ezik ezin lei jakin
zer poz-eztia dan ori.

3/ Iru Errege agertu ziran
Meltxor, Gaspar ta Baltasar;
milla gauza ta gozo-mendi bat
morroi-talde batek dakar.
«Egun-on» einda Errege jaunak
umetxoakana azkar...
Zoragarria mosu emoten
Errege-umeak alkar.

4/ Ume gexoak, batzuk etzunda,
beste batzuek atinik,
an etzun batek bere iragarten
samintasunik eukanik.
Umetxo eta Errege jaunak
bai euken artu-emonik;
gu, jarraitzaille, arei begira
negarrai eutsi ezinik.

5/ Umetxotatik ikasi neban
Jesukristoren dotriña,
eta berakin zerua dala
gizonarentzat egiña,
mundu ontako pozik onena
ez dala alako bardiña;
andik etorri zala zirudin
an izan zan atsegiña.

6/ Mojak umetxo gaixoak zaintzen
alai ta maitasunean,
Jaungoikoari eskiñi leion
lanikan ederrenean;
era orretan pozez diranak
mundu onetan lanean,
santuen maillan izango dira
betiko Zorionean.

7/ Gauza ederra bizi guztian
arintzen urkoen penak,
zeru zabala gerturik dauko
ori egiten dabenak.
Umilla dana ez dau arrotzen
mundu ontako omenak,
bakar-bakarrik indartutzen dau
betiko itxaropenak.

8/ Gorliz'en dan lez erabiltzeko
umetxoaren gexotza,
zorionean joten dau iñoz
Jaunak gizonen biotza.
Zeruetara begira nago,
osakille zu, Areiltza,
zein izarrekin aurki ete zan
munduko zure jaiotza?

9/ Gorniz'ko guzti zuzendarior
txalo bero bat gogoti,
eta parkatu, ongille danok,
nik aitatu ezagaiti.
Baña or ziur egon guztiok,
ortan dudarik ez euki:
mundu onetan zer pasatzen dan
Jaungoikoak ondo daki.

10/ Gure Jainkoak bedeinka deila
Gorniz'ko itxas-egala,
eta bialdu ume orreintzat
euron aingeru jagola;
badakizue Jesus Umea
ume danen lagun dala,
onak izan da Jesus Jainkoak
danok senda zaiezala.¹

¹ *Príncipe de Viana*, Maiatza, 1975.

AGUR, MONTAÑO!

Bilbo'n, Uribarri aldean zegon *Txakoli Montaña* izeneko baserri-etse bat.

Zarra, baiña kaletik ur; eta, etse barriak egitean, bota egin bear etsea, eta bere soloak bere etse biurtu.

Orregaitik, bere azken egunetan agur omena egiteko bertako famili guztiak, bertako illoba Andoni Gerrika-etxebarria abadea buru zala, meza santu ospetsu bat bere etse barruan esanez, egin jakon azken agurra.

Neu bere an egon nintzan lez, bertso oneik gogoratu jatazan, beragaitik zerbait esateko.

Montaña'ren txakoliña oso famatua eta popularra zan, eta Bilbo'ko eta inguruko txinbotarrak bertan alkartzen ziran, umore ederreko meriendak eta amarretakoak egiten.

Baserri onetan egon ziran makatzak, madariak, okaranak, maratzak, loratzak eta abar. Baita batez bere ortuari samur eta gozoak.

Bertako guraso eta seme-alabak, oso euskaldun eta alaiak. Amaika neba-arreba, amaika irriparrerren ispillu, eta beti laguntzeko gertu.

Bere solo-baratzetan egiten ziran txori kantarien zein-geiagokak. Bilbo'ko alkate ta gizon ospetsuak bertan aurkitzen ziran, sariak banatzeko eta jaiok aupatuteko.

Azken agur ori, 1971 urtean izan zan, gutxi gora-bera.

- 1/ Agur Montaña, agur etxe zar ta agur San Juan makatzak, agur txakolin gorri zuri ta bera egiteko matsak, agur guztien alaitzarako usain gozoko loratzak, agur txorien txiruliruli zerurako alabantzak, agur oneikin tristetzen dira txinbotarraren biotzak.

2/ Aurrerapenak bere indarrez
zarrai eiten dautso bultza,
etse oni be esaten dator:
«Eldu jatzu eriotza».
Ta berau maite dabenezako
tamal ta samin garratza;
baña bertako seme leialak,
agerturikan biotza,
meza bategaz egiten dautse
azken agurrez otoitza.

3/ Meza barruan gure Andonik
esan dauz berba gozoak,
umil-umillak benetan baiño
egi andi ta osoak.
Au esateko oiñarri artu dauz
etse ontako gurasoak,
entzute andiko ezpaziran be
bai birtute andikoak,
eskatu daigun izan gaitez
beintzat euran antzekoak.

4/ Ixildu ziran txori abeslari,
ixildu txakur-ausiak,
amaitu ziran txakolin eta
makallo gozo guztiak.
Baita banandu amaika seme
etse onetan aziak,
zuen adimena argitu deila
Jaungoikuaren graziak,
mundua dan arte iraun dagian
etse ontan ikasiak.

5/ Poz aundiagaz ikusten nago
nere begien aurrean:
Montaño'tarrak txortatxo baten
pozez txoratu bearrean.
Esango neuke olako pozik
eztagoala lurrean,
il ziran danak ona begira
goiko zero ederrean,
zeru-usaiña asmatu da gaur
Montaño'n etse zarrean.

6/ Meza eder au ospatu dausku
bertako illoba Andonik,
osaba-izeko entzuten gogoz,
pozez negarrez zutunik.
Ain zan gozoa meza ura ta
iñok etzun ein zirkinik,
au ikusita mundu danean
gogoz esango neuke nik,
ikusit barik eztagoala
au sinistuko leukenik.

7/ Etse onetan batu gara gu
azken agurra egiteko,
guzurra dala badirudi be
azken agur au betiko.
Etse maitea, zure berorik
geio eztoqu artuko,
baña zentzunak argirik eta
biotzak otsik badauko,
gure aldian, etse zar maite,
iñoz etzara aitzuko.

NAPARROA'KO ILLEROKOA

Bertso oneik, Markiña'ko urteroko bertsolari batzarrak apurtu ziranean jarriak dira.

- 1/ Aspalditxoan bertsolariok
putz ta putz ibilli gara,
Bizkai alde ta Gipuzkoa'tik,
azkenez Naparroa'ra.
Ta Naparroa'n aurkitu dogu
pizturik oindik txingarra,
ta txingar orren sukalde bero
Printzipe Vianatarra.

- 2/ Orain artean Markiña'n doguz
urteroko besarkadak,
baiña gaiñera bear genduan
bitarte danon biotz bat,
illeorotan artu daiguzan
bere odolana taupadak,
bertsolariok alkar botata
irrintzi eta aupadak.

- 3/ Anaitasuna bear gendun lez
gauza guztien ganetik,
anai ezautzen zabaldu giñan
bein Euskalerra danetik.
Lenengo besarkada beroa
Markiña'n Aita Juaristi'k,
orain amesen betegarria
Príncipe de Viana'tik.
- 4/ Bertsolariok beti izan dogu
bide latza ta estua,
leku askotan aurkitu dogu
ta sarritan eskatua.
Zaindu dagigun loratxo bat lez
gaur daukagun ostatua,
au dogulako borondateaz
Jainkoak bedeinkatua.
- 5/ Bertsolariok alkar aitzeko
zerbait bear gendun jarri,
geure artean jakin dagigun
batek bestearen barri.
Eta gaiñera zerbait lortzeko
bertsozalien pozgarri,
zerbait saiatu gaitezan danok
indar emonaz alkarri.

- 6/ Ileroko au sortua dogu
sendotuteko euskera,
Naparroa'ko Diputazio
diruz berai laguntzera.
Bertsolari ta bertsozaleok
batu artalde batera,
arlotan jokatzeko
famili baten antzera.
- 7/ Geurea dana geure arduran
geuk ezpadogu artuten,
auzokorikan ez dator inoz,
ez, norberea zainduten.
Ez daigun itxi pizturik dogun
txingar ori amatauten,
ingururatu baxotxa bere
illintxia urreratuten.
- 8/ Aldi batean bagendun ere
izatearen bildurra,
zorionean aurkitu dogu
uste onaren gaillurra.
Atsegiñagaz ontzat artuta
zuen ostatu samurra,
artu mesedez, napar maiteok,
biotzetiko agurra.¹

¹ *Príncipe de Viana* aldizkaria, 1972, IV.

ABADEAK PRESO

- 1/ Egi bat ipinteko
argitasunean,
Jauna nai nuke artu
laguntasunean,
eta egi au jarri
bertsozko lanean,
ontzat artuko'zuen
itxaropenean.

- 2/ Egia esan al dunai
ezin esan azo,
ta esan nai dabenai
esaten galazo;
egi au esatera
abadeak jaso,
esanagaz batera
sartu dabez preso.

3/ Euren aotik etzan
besterik atera:
«Gora egia eta
guzurra lurpera!»
Orregaitik juzgatu
kriminal antzera,
ta urte askorako
kartzela batera.

4/ Parabola antzera
adierazteko:
erria dago preso
ta zuek ordezko;
nai-ta or egon bear
lotuta betiko,
gogoz beintzat etzare
bakarrik itxiko.

5/ Orain bi milla urte
Judas ta Pilatos,
gaur aien antzerako
batalloiak datoz;
tribunalak jarririk
ezjakin ta gaiztoz,
bete dabez kartzelak
gizon errubakoz.

- 6/ Munduan juzgalari
jaun guzurrezkoak,
kontu au ondo daki
Jesus Jaungoikoak;
Jesus juzgatu eben
jakitun gaiztoak,
eta gure apaizak
argirik bakoak.
- 7/ Zapalduten badira
Kristoren legeak,
gizon andienak be
olan abereak;
zuoi eskerrak, preso
zaren abadeak,
Euskalerrian bai dau
arnasa fedekak.
- 8/ Bere lege sagrauak
Elizari ostu,
eta lege sagrauok
nai daben lez artu,
eurantzako nasai ta
besterentzat estu;
ori nai eztabena
kartzelara sartu.

9/ Epaikariak argi
onak bear ditu,
eta gizon guztien
oiuak aditu;
ez «neu naz nagusi» ta
urkoa baztertu;
Kristo gaur etzan ezer
orreik ein balitu.

10/ Etorri bear baleu
Jesusek birriten,
baida bear izana
gaur etorri daiten;
baiña gaur mundu ontan
ezer eztu egiten,
bonba ta kañoiakaz
ezpada etorten.

11/ Abadeak dituna
kartzelan lotuta,
palio santuagaz
dauke estalduta,
Pilatosen antzera
esku garbituta,
Kristoren ordezkook
juzgatu ditu-ta.

12/ Ogiaren gosea
Pakistan'tarrena,
eta Biafra'tarrak
igaro ebena;
Jesus, zeuk esan zein dan
goserik txarrena:
ogiarena ala
justiziarena.

13/ Guzurraren indarrak
zaitue loturik,
ez dozuelako nai
egia besterik;
baiña ezta munduan
guzur nai piztirik,
biotzean dagona
urrututzekorik.

14/ Egia il nai dabe,
guzurra bizirik,
gizonik eztagon lez
ezta justizirik;
mundu au balego be
aberez beterik,
elitzake jazoko
onenbestekorik.

- 15/ Apaiz gazteak preso
ainbeste denporan,
eta anai kristauak
zelako ganoran;
Euskalerrriak bai dau
zer galdu Zamora'n,
kimu barri ederrak
arriskuan lorán.
- 16/ Obispo batzuená
ezin lei sinistu:
abadeak kartzelan,
txarrak bedeinkatu;
egirik ez badabe
nai argitaratu,
zertarako obispo
eta Aita Santu?
- 17/ Kristo etorri jakun
danok askatzeko,
kurutzean il eben
aurretik kentzeko;-
zori txarrez etxakun
bizi urte asko,
baiña gaur ilgo leuke
lurra jo orduko.

- 18/ Au bai dala tamala,
kristauak, benetan:
egia zapaldurik
eta kartzeletan;
orra jarraitzekotan
or bide orretan,
oba mundu au erre
ta amaitu bertan.
- 19/ Kristo egiazkoa
geugaz daukagu-ta,
gertu bere legetik
indarrak artuta;
guzurra izango dan lez
betiko lotuta,
oba da preso bizi
ta il askatuta.
- 20/ Kristok balio eban
lapur batzuk beste,
orregaitik il eben
lapurrekaz naste;
gaur abade ta lapur
daukaguz aparte:
abadeak lotuta
ta lapurrak aske.

21/ Jesus jaio zanean
jaso zan Herodes,
ta orduan Jesusek
Ejipto'ra iges;
gaur bi milla Herodes
batentzat diran lez,
lurpetik joanda be
atrapatzen dabez.

22/ Bi milla urte dira
Jesus izan zala,
ordutik ona egin da
zigorraren gala;
beti egia *reo*,
guzurra *fiskala*,
kristauak au ez dogu
justizi makala.

23/ Tribunalean jarri
gaiztoen morroiak,
fiskal egiten eban
piztien orroiak;
an etzuan balio
egi ta errazoiak,
bakarrik falta ziran
jateko leoiak.

24/ Agintzen dagozan lez
gizon makalenak,
engañatutzen dabez
ortik datozenak;
baita bete be ondo
kanpoko ordenak,
nai-ta etsean artu
erru bako penak.

25/ Jainkoaren aurrean
gizona arrotu,
arrokeriz jagi ta
oneixek nai ditu:
bere eskubideen
neurriak apurtu,
ta Alguztidunaren
altasuna neurtu.

26/ Atzo mundura etorri,
gaur bizi, biar il,
ori ausnartuta be
ezin bizi umil;
zorioneko dana
zentzunez balebil,
deabruaren putzak
aidean darabil.

27/ Ain dira andikiak
ta naiago dabe,
Jaunaren seme baiño,
gaiztoen errege;
alper izango dira
pizti nai abere,
Jauna dalako nausi
inpernuan bere.

28/ Pizti nai abereak
dauke euran lege,
eginda diran legez
betetuten dabe;
gizonak egin nai dau
guztien errege,
bere kontura nai ta
eskubide gabe.

29/ Gazteak besartea
liburuz beterik,
estudio bitartez
gizon izan nairik;
baiña eztira izango,
ez dago dudarik,
ezpada kontzientzien
asinaturarik.

- 30/ Eliza Ama dogu
oso saminduta,
apaizak ditulako
kartzelan sartuta;
kristiñau danok jarri
adi itxartuta,
arlo onen ardura
geurea dogu-ta.
- 31/ Munduko justizia
oso dago gaixo,
egia samin, garratz,
ta guzurra gozo;
egi ona zapaldu
ta guzurra jaso,
egia galazo ta
guzurra ar-azo.
- 32/ Eskubide sagraua
sortzean artua,
bizitzan izateko
gizon askatua;
askatasuna ez da
alkarri ostua,
au kentzen dabena da
madarikatua.

33/ Gizonaren arima
ezpalitz betiko,
zentzunaren argirik
eleuke eukiko;
eztau bear dan beste
ori ausnartzeko,
uts au betetuteko
fedea da neiko.

34/ Kristo Alguztidunak
danok maite gaitu,
orregatik nai gaitu
guztiok askatu;
baiña argi diño ta
au gogoan artu:
Urkoa lotutea
ezin da parkatu.

35/ Ezker eta eskuma
gutzat dana txarra,
bata astoa eta
bestea akarra;
batak ostikoa ta
besteak adarra,
gutzako danakandik
neke ta negarra.

36/ Zabal euki ezker
biotz eta begi,
ori da benetako
biderako argi;
lagun artzen badoguz
errazoi ta egi,
Jaungoikoagaz dagoz
aurpegiz-aurpegi.

37/ Asto lez erosita
bertako semeak,
zapaldu oitura ta
bertako legeak;
atzetik eiten deutsez
burla ta barreak,
lortu dabezalako
geure naigabeak.

38/ Batzuen portaerak
neurririk eztauka:
deabruan gurariz
euran Amen aurka,
biotza kendu nairik
amurruz indarka;
deabrua atzetik
barre ta burlaka.

- 39/ Izan bear giñanak
danok alkartuak,
orreik diabrugaz
naiago tratuak;
orregatiño dagoz
oso amorratuak,
agertzen diralako
euran pekatuak.
- 40/ Jesus, zeu zaran legez
Jaun egiazkoa,
ez zaitez izan orrein
itxu aurrekoa;
bada biar baletor
beste aldekoa,
laister emongo'tsue
oneik ostikoa.
- 41/ Jaunak Jesus bialdu
guri irakasten,
zelan bizi munduan
alkar maitatuten;
Bera geuk juzgatu ta
josi dou kurutzen,
lotsatu bear geunke
burua jasoten.

42/ Jauna, geure errua
zerbait izan leike,
orregaitik ez nago
zuri kontu eske;
zure zigorra balitz
guk artuko geunke,
zergaitik oneikandik
orrenbeste neke?

43/ Gizona zentzundun da
gogoz eta barruz,
ta esan lei dagola
adarrez ta narruz,
josita dagolako
griñaz ta amurruz;
tamal lotsagarria:
dana geure erruz.

44/ Gizonaren zigorra
bere izerdia,
baiña orren ordezeko
zentzunen argia;
gizonen erruz ez da
izerdi garbia,
zoritxarrez or dogu
odola erdia.

45/ Sugeak dau zigorra
Jainkoak emona,
narraz ibili bear
sortu zandik ona;
au da Jaunak orduan
egin bear zuna:
sugea zutik itxi
ta narraz gizona.

46/ Maitasunen errege
Kristo gure Jesus,
gaizto izanda bere
danok maite gaituz;
zigor txiki bategaz
jotzen ezpagozuz,
laister beteko zara
Judastarren mosuz.

47/ Au bai dala egia
argi ta biribil:
bizia artu ilteko
ta biziteko il;
sinisten ez badogu
zintzo eta umil,
gizon artean nausi
deabrua dabil.

48/ Eriotza-orduan
artega dagona,
ez da fededun edo
ez da izan ona;
zintzoa ta umilla
izan dan gizona,
il bearrean bere
ai zer zoriona!

ITURRI'REN OMENALDIA
(1971-X-31)

- 1/ Gure Gernike'n, frontoi Alai'an
*Iturri'*ren omena zan,
omen orretan parte artzeko
aintxe agertu gintzazan.
Aurretik bere usmatua zan,
au eztago zertan esan,
Euskalerrria indartsu dala
anaitasunen arnasan.

- 2/ Anaitasunen ispillua zan
Gernika'n ikusi zana,
euskaldunen bat bizi dan arte
egundo ilgo eztana.
Lagun bat jaso bear zala ta
a bai zan laguntasuna,
alakoetan ezta ikusten
gizon biotzik eztuna.

3/ Frontoi barrura sartu orduko
axe neunkan ausnartuta:
an gengozala anaiak legez
biotz danak zabaldua.
Biotz aundi bat egin genduan
guztionak alkartuta,
Iturri lagun maitearena
danen erdian sartuta.

4/ Frontoi guztia gizontasuna
biotzez eta indarrez,
lagun *Iturri* gurditxo baten
geldi baiña irriparrez.
Gernike ortako frontoien lurra
busti genduan negarrez,
an ikusi zan Euskalerrian
biotzik bada edo ez.

5/ Tamala zana bertsorik eza
bertsolarien omenez,
kantatuteko gogoia baizan
baña baimenik emon ez.
Geure anaiak olako gauzak
gaur zelan egiten dabez?
Kustiñoa da bertsolariok
bete ginduzan naigabez.

6/ Barkuak baño indar geiago
dauke an ziran morroiak,
une batzutan ni egon nintzan
plaust eingo ete zun frontoiak.
Izan giñanen txaloak eta
lagun Deunoron orroiak,
errazoiagaz berotzen zitun
lanean ziran leoiak.

7/ Umiltasun ta gizontasuna
bai eukan egin zan jaiak:
lau kintopeko mutil borobil,
indartsu eta alaiak;
beste asko ta euran artean
gure Aretxa anaiak,
euskal kirola aupatuteko
baidau indarra Bizkaia'k.

8/ Egazkan legez dantzatu ziran
ondarrutar bi aingeru,
dantzari eta aurrekulari
zoragarri Etxaburu.
Lendik ei daukaz irabaziak
irureun kopa inguru,
bakez badoiaz elduko dira
milla batera seguru.

9/ Naigabea be lagun gaukazuz,
Iturri anai maitea,
ta gura geunke zerbait arindu
zuk daroazun nekea,
ta al danetik familiari
arindu daukan kaltea,
eta alaitu betetuteko
Jaunaren borondatea.

10/ Grazi bat legez, urruturikan
ekaitz gaizto eta laño,
eguzkiaren izpi zorrotz bat
sartu jakun frontoraiño.
A ikusirik, lagun *Iturri*,
nere biotzak au diño:
batzuentzat egun bat geio dala
askoentzat eun urte baño.

11/ Oso gitxitan onduko dira
an egin zirean lanak,
eskatuta lez edo obeto
urten eban bertan danak.
Orfeoi bat be zuzendu eban
Mozart'ek legez Aldana'k,
iru edo lau abesti eder
ta azkenez *Agur jaunak*.

12/ Atsegiña ta alaitasuna
guztia besterik ez zan,
gorputza neukan irikiten da
iñola ezin eutsi neutsan.
Nere biotza istendatuta
eta begiak negartzan,
zugana ezin urreratuta
bakarrik aldendu nintzan.

PENTSAKIZUNAK

- 1/ Aspaldi ontan gure errian
baidogu neke negarrik,
gaur ez dalako errespetatzen
gizonen eskubiderik,
Baiña nai erre ta nai kiskaldu
egia beti bizirik,
egi orregaz jarrai ezkeru
gizon guztiak alkarrik,
geurea dogu azken garaitza
esku utsakin bakarrik.

- 2/ Ortu santuan ikusten dira
arri landu ta burdiñak,
artista onak, asko kostata,
aberatsentzat egiñak.
An bere ondo igaroteko
eiten dabez alegiñak,
eta txiroa irunsi bear
berezko dan lur gordiñak;
ez ikaratu, ara joatean
guztiok gara bardiñak.

- 3/ Mundu onetan izan arren be
aberats andi ta altsu,
dana galdua zure arima
zeruratzen ez bajatzu.
Bein il ezkerro dana lurra da,
guztia gor, mutu, itsu,
enterrau arren ontzi andian
koroitsu eta loratsu,
mundu ontarako polita baiña
zeruetarako galtzu.
- 4/ Iparragirre'k kantatu eban
ia emonaz negarrai,
ikusiagaz menpe zirala
gure mendi eta zelai.
Ipar alde ta ego aldeko
anaiok, asabai jarrai,
olan alperrik jarriko dauskuz
orko muga eta ibai,
ezin leitekez banandu eta
odolez diranak anai.
- 5/ Gizonik-eta gogorrenak be
egiñak dira arritu,
gogoraturik mundu onetan
ezin leikezanak neurtu.
Egi santua guzurtu eta
guzurra egi biurtu,
baiña gizonak mundua eta
geiago bere baditu,
eta nonbaiten aurkituko dau
kontu guztiak nok artu.

6/ Munduan ezta izango iñoz
txiroarentzat lekurik,
arro andiak daukielako
umilla mende arturik.
Euran legeak bete bearra,
emen eztago besterik,
baiña gizonak au esan geinke,
eta errazoiz beterik:
Munduan ezta askatasuna
neurtuteko errazoirik.

7/ Gizonak egin bear dauan bat:
merkantzi txarrik ez saldu,
egiarekin jokatu eta
itxaropenik ez galdu;
egia egi izango da-ta
nai-ta guzurak zapaldu,
gure asaben esakera bat
ortan gura dot azaldu:
«Mendia beti an izango da
nai-ta laiñoak estaldu».

8/ Agintarien agindu naiak
ezin legikez azaldu,
norbera nausi izatearren
lagun urkoa zapaldu.
Burruka ori galdu baiño len
deabru zarrari saldu,
alkar iltea irabazi ta
alkar maitatzea galdu,
era ortako garaitza orrek
zertako balio al du?

- 9/ Jakitun askok bere indarrak
eztitulako neurtuten,
berak erantzun ezindakoan
asten da gauzak nastuten.
Galdu be asko, bere erraian
ezpaidira geldituten;
norbere argitik aurreragorik
ezer eztan lez ikusten,
deabruaren sarean sartu
eta gero ezin urten.
- 10/ Gure erriak igaro dituz
bai arrigarrizko gerrak,
eskubideak ez galtzearren
izugarrizko gogorrak.
Baita artu be zapaldurikan
neurrik bako zigorrak,
baita galdu be seme leialak,
zintzoak eta ederrak,
gure erria gaur bizi bada
il ziranairi eskerrak.
- 11/ Guk euskaldunok ondo dakigu
idatzirikan dagola:
egi zuzena eztala ilgo
egundo eta iñola,
Alguztiduna dagoalako
goiburu bere jagola.
Alperrik etzan egien alde
ixuri gendun odola,
gure egia argitan dago
eta zutunik arbola.

- 12/ Euskalerria bizirik dago
indartsu, arnas, irrintzi,
Pirineoak erdi dirala
emen gara sei probintzi.
Mundua mundu dan bitartean
nai-ta narrua erantzi,
alde batetik España da
eta bestetik an Frantzi,
otso bi oneik aoan dauke
baña ezin dabe iruntsi.
- 13/ Frantzi ta España dira otsoak,
Euskalerria bildotsa,
ta otso orreik bildots oneri
nai dautsie eriotza,
Kendu nai deutse bere kultura,
nortasuna ta izkuntza,
otso bi oneik alkar tiraka
zatitu dautse gorputza,
baña gorputza zatitu arren
osorik dauka biotza.
- 14/ Urietako sakonetatik
igon ezkerro mendira,
sentitzen gara urten dogula
illunetatik argira.
Zeinbat obeto gizon guztiak
konturatuko balira,
bada bertatik begiratuaz
izar eta eguzkira,
Jaungoikoaren anditasunak
argiago ikusten dira.

15/ Urrin izarrak, urrin eguzki,
arago zero urdiña,
eta guztiak baiño arago
azkenik eztun urriña.
Agiri dana eta eztana
Alguztidunak egiña,
zer buru-auste gizonarentzat
ori ausnartu eziña,
aitatu bere ezin egiña
bere zerbait ezpagiña.

ERRI BATEN KEZKAK

- 1/ Euskalerria gizon-lekuan
beti argi ta apalik,
gogo onakin datorren dana
artzeko beso zabalik.
Baiña txarrean, nai-ta fusilau,
nai-ta urkitu zintzilik,
iñoiz be ez dau traizionatuko
bere asaben odolik.

- 2/ Ze gauza motzak jazoten dira
teloian andik aldean!
Negar eiteko gogoia artzen da
sarri, entzuten danean.
Arein antzera gabiltzaz bada
geu bere zori txarrean,
geure oiturak galazo-eta
geu jaio giñan lurrean.

- 3/ Bedar andiak bedar txikia
errez eiten du zapaldu,
Bilbo aldeko erdera artean
euskera nekez azaldu.
Baiña azia bizi dogu ta
azi au ez daigun galdu,
ta azi onek egunen baten
frutua emongo al du.
- 4/ Euskalerrria beti izan da
umilla eta apala,
nai bere aurka sarritan jaso
kaluni ta astrapala.
Euskalerrriak danentzat dauke
egizko biotz zabala,
esango neunke ETA bera be
gelditu egingo dala.
- 5/ Bakoitxak dogu geure oitura
biotz barruan sartuta,
ume giñala geure amaren
bular barrutik artuta.
Alper-alperrik eukiko deusku
biotz ori zigortuta,
umetxotatik artzen dan ezer
iñok ezin dau kendu-ta.

- 6/ Agintzen diran gizonen berbak
baldin egiak balira,
esan al geinke badatorrela
askatasuna errira.
Baiña adirik jarri ezkerro
gizon orreiri begira,
bildotsen berbak esan arren be
len otso izanak dira.
- 7/ Nai edurrakin beti kantari
egunsentian txoria,
gure erria beti izan da
txoriak lez kantaria.
Gaurko munduan igaroten da
benetan aldi larria,
ez ikaratu, ez da galduko
kantari dagon erria.
- 8/ Eskubidetan geurea dana
gizonak alkar ukatu,
era orretan izatekotan
oba da bertan amaitu.
Baiña kontzientziz egin bear bat
bear doguna betetu:
nai-ta gu orain lotuta bizi
geure urrena askatu.

- 9/ Basarrian dauz bere zuzterrak
munduko izkuntz zarrenak,
orain aldatu egin nai dausku
kalean agertu danak;
aberastasun geio daukala
kaletarrak dakarrenak,
gauza txar asko entzunak gara
ta entzuteko txarrenak.
- 10/ Erbestetarrak kendu nai dauskuz
izkuntza eta oitura,
ta baita bere orrez ganera
nortasun eta kultura.
Ori kentzeko ezta etorri,
ez, oraindikan mundura,
erria iñok ez dausku ilgo
nai-ta gertau sepultura.
- 11/ Geure errua izan ez daiten
gero bier edo etzi,
geure arduran dagoan ezer
iñon eskuan ez itxi.
Gizonak eztau gizon aurrean
zergaitik bururik jatsi,
bestearena errespetatu
ta norbereari eutsi.

12/ Euskalerrak errazoia ta
egia ain maite ditu,
eta eurakin geldituko da
nai-ta zintzillik urkitu.
Arrigarri da benetan baiña
zer naiago dun begitu:
guzurrarekin salbatu baiño
egiakin kondenatu.

ZUZENBIDEA

1/ Danok gara bardiñak
mundura etorreran,
eta munduan be bai
gitxi gora-beran;
dagon aldea dago
geure izakeran,
eta gero betiko
izan geran eran.

2/ Orra or arrokeriz
egin zana lortu:
aingeru izan zana
deabru biurtu;
emen egiten dana
Jaunari arrotu,
arima kendu eta
bertan mamarrotu.

3/ Mundu guztia dogu
guretzat egiña,
ta zer gauza andia
zuzenak bagiña!
Baiña bakarrik dogu
amurru ta griña,
ori da guk daukagun
okerrik aundiña.

4/ Kristok ipini euskun
bideko orratza,
bere punta gidari
jarririk gorantza;
gero, igon orduan
munduko aldatza,
aurkituko dogula
Aitaren baratza.

5/ Argi sakon apur bat
ekarri gogora:
mundura nondik eta
mundutikan nora;
gorputzak bakarrik dau
munduko denpora,
ta arima keia lez
gora eta gora.

6/ Luzifer arrotua
iñok ezin ezi,
inpernura bota ta
mundura igesi;
eta emen jarrita
gizonaren nausi,
Kristo etorri zanean
kurutzean josi.

7/ Urrinera joan da
oindo urrin dago,
goraiño igon eta
oraindik gorago;
guztiaren ganetik
Jaungoikoa dago,
sinistu al dan baiño
askoz andiago.

GAURKO MUNDUA

- 1/ Mundu au dogu zorionean
frutu ederrez beterik,
eta munduan ezta bear be
frutua baiño besterik.
Mundu onetan faltau ez daiten
urrengoentzat fruturik,
artu gendun lez itxi deiogun
guztia oso-osorik.

- 2/ Jakin dagigun mundu onetan
frutua ugari dala,
ta betiko emongo dabela
danok bear izan ala.
Baiña ez ostu petroliorik,
lurra eta minerala,
ondorengoak esan ez daien
lapurrak izan giñala.

3/ Mundu onetan gizonak beintzat
argi andiak ez ditu,
baiña daukazan apurrak beintzat
egin bear ditu piztu.
Orduan doa bide argitan,
urkoari be argitu,
gizonarentzat andiena da
illuna argi biurtu.

4/ Aberats askok lar janarekin
ikusgarrizko zilbota,
eta txiroak gosearekin
okotza belaunaz jota.
Ene Jainkoa, gaur egunean
txirorik geio ez bota,
mundu onetan txiroarentzat
janaririk ez dago-ta.

5/ Gaur mundu ontan jazoten danaz
jarri leike arriturik:
mundu erdia goseak ilten
ta bestea aseturik.
Jaunari emon al baleio be
ondasunen errazoirik,
egundo be ez urko-gosea
justifikatutekorik.

6/ Munduan iru zatitatik bi
dira gose ta negarra,
irutatik bat gulerietan
jan ta bota firri-farra.
Ondo jakinda geure anai ta
umetxoen zori txarra,
ogien ordeztzatzen dautse
kañoiarekin sugarra.

7/ Ola diranak mundu onetan
agintzen ta justizien,
zeruetako azken epaian
izan leitekez txikien.
Gosez il ziran umeak *fiskal*,
andiok *reo*-eurkien,
betiko galdu edo ez galdu
Jainkoaren errukien.

8/ Askatasunak askatasuna
zer izen ederra dauko!
Izen eder au nere ustean
ezta ain egoki gaurko.
Lagun urkoa lotu nai dogu,
askatasuna geutzako,
era ortako askatasunak
askatasunik eztauko.

- 9/ Gaur badaukaguz jakitun asko
edo jakitun antzeko,
ta ez dakie ezertxo bere
ezjakiñak ulertzeko.
Berba uts putzak billatzen dabez
gauza utsok apaintzeko,
ori da gaurko arma onena
urkoa marjiñatzeko.
- 10/ Mundu onetan diru barik be
baidago aberats asko,
Jaunak emonda daukienagaz
pozez bizi diralako.
Burutik dabiz aberats asko
birtute au lortutzeko,
baiña iñondik ezin aurkitu
diruzale diralako.
- 11/ Aspaldi ontan ugari dago
fariseo ta lapurra,
egi garbia zapaldu eta
txalotuten da guzurra,
burrukariai lagundu eta
bakezaleai egurra,
goien diranai aintza ta aintza
eta zapaldu makurra.

12/ Lagun urkoa iltearekin
gizonak au lortuten du:
bere kontura egiteakin
gure Jainkoa iraindu,
negarrez dagon erri maitea
oindo geiago samindu,
sarri andrari senarra eta
umetxoai aita kendu.

13/ Jaunak onela zigortu eban
lenengoko pekatua:
bere izerdiz jana lortzeko
gizona zan zigortua;
baiña zigor au dauka gizonak
bere kontura artua:
askok eiten dau artu urkoen
izerdiaren frutua.

14/ Jaunak gizonai esan eutsala
gizonak esaten dabe:
«Zeure izerdiz egingo zara
zeure janarien jabe».
Baiña batzuek lar jaten dabe,
izerdirik bota gabe,
ta beste batzuk ezin dabe jan
izerdia botata be.

15/ Txiroak bere ogi sagraua
bustiten dau izerditen,
ta aberatsak txiroarena
jan baiño ez dau egiten;
eta txiroak izerdi ori
bota bear dau birriten,
kontzientzi bako aberats ori
neke barik bizi daiten.

16/ Aurrerapena nai dabenari
jazoten jako askotan
ondamenera eroatea
onerako dalakotan.
Ez al dogu ba oba izango
ondu len doguzunetan,
gauza andirik ezta bear-da
munduko lau egunetan?

17/ Zu, atomika aurrerapena,
gauza ederrena zara,
bide onean jarri ezkeru,
guztiok orretan gara.
Baiña gerra bat etorten bada
lenengo bonbak bertara,
au sortzekotan oba biurtu
Adanen denboretara.

18/ Nuklear ori jarri nai dabe
gure Bizkai'ko kolkoan,
ona dala-ta, txarra dala-ta,
dabiz denbora askoan.
Ea Euskadi ondatutzen dan
onerako dalakoan,
gauz ori ondo proba nai bada
proba daiela Moncloa'n.

19/ Listo aberats artega dabiz
nuklear au lortu arte,
baiña erria deiarka dago:
«Arriskua da bitarte!»
Deskuidu baten ilgo ei leukez
bertan ainbat milla jente,
listokerian atrebiduak,
arriskuan iñozente.

20/ Nere eretxia azalduteko
esango neuke onela:
nuklear ori ain ona bada
len baiño len datorrela.
Baiña bestetik gauz ori bada
jartzeko milla eskela,
itxaso orrek irunsi eta
bertan ondatu daitela.

21/ Lengo itxura ez dauka iñon
baserri solo baztarrak,
gazteak iges kalera eta
gurasoak oso zarrak.
Il baiño lenao ezpadau artzen
laguntza baserritarrak,
alperrikoak izango dira
il da geroko negarrak.

22/ Gaur menditikan ibili naiz ta
bertan larri ein dot negar:
baso guztiak piñuz beterik
ta solo guztiak bedar.
Zarratu eta ipinten dabe
«Es terreno particular»,
batzuek oin bat non jarri ez ta
beste batzuek berriz lar.

23/ Aberatsen bat mozkortzen bada
esaten dabe polito:
*«No ha bebido, pero hoy se ha
mareado el señorito»*.
Txiro langille indar gabeak
indarrik ez ibilteko,
esaten dabe: «Lotsabakoa,
zelako mozkorra dauko!»

24/ Gizon asko daoaz estudiatzen
bai Unibersidadean,
Jaungoikoaren Altasunaren
zerbait ikasi naiean.
Batzuk lur barruz sartzen dira ta
beste batzuek aidean,
baña berriro etorri bear
edo ondatu bidean.

25/ Emen bai dira pentsalariak
oso indar andikoak,
baiña ni nago ete direan
geienak alperrikoak.
Gizonak sarri lortu nai dituz
arlotik kanporakoak,
neurritik aurre joatearren
biurtu artolastoak.

26/ Egin bear bat daukagu danok
munduan eguneroko,
une onetan egitekoa
ez daigun itxi geroko.
Bierreraño munduan iñor
ez garalako elduko,
egin eztana gelditu leike
egin bagarik betiko.

27/ Gauza anditzat artuten dogu
gizon estudiokoa,
baiña jakite andiena da
argitasun berezkoa.
Mundu onetan zori txarrean
iñok eztaki.neikoa,
baiña al dana egin bear da
munduan onerakoa.

28/ Mundu au oso txarto daukagu
bai betik eta bai goitik,
bertan dagozan andiki eta
arro ta gaiztoakgaitik.
Guzurrak eta zapokeriak
botatzen dabez aotik,
oba guztiok joango balira
mundura barik albotik.

29/ Gizonak berak eskubideak
nai daben lez artzen ditu,
besteak ditun errazotari
iñondikan ez begitu.
Petrolio-ta ateratzeko
mundu-sabela zulutu,
ori ein barik gizonarentzat
emon arren neiko frutu.

30/ Gizon asko da eskubidetan
baño geiagoren jabe,
askoz geiago munduratzean
oiñak non ipiñi gabe.
Batzuk larrekin arro-putz ala,
besteak uts ta naigabe,
bat eta bestek Aitaren maian
zer entzungo ete dabe?

31/ Ume gaixoak gosez negarrez,
ama munduari deike,
sobra daukanai umetxoentzat
ogi apur baten eske.
Gizon askoren erantzuna da
gorrotoakin aginke,
gure legea salbatuteko
ori ezin egin geinke.

32/ Mundu-zati bi doguz nagusi
kañoi zatarren indarrez,
eta besteak zapaldu eta
gosez, gaixo ta negarrez.
Sobratakoan ogia bere
gose danari emon ez,
deabruaren erentzi dau au
gizonak, ikusten dan lez.

33/ Gizonak bai dau mundu onetan
bere kexa ta zarata,
Jaungoikoari erru botaten
txarto bizi garala-ta.
Orretan bere badau gizonak
astakeri bat galanta,
gu emen txarto bizi bagara
ori geure erru da-ta.

34/ Zu, maitasuna, ai, maitasuna,
non zagoz zu, maitasuna?
Gizonari dei eten gabe ta
erantzunik ez dozuna.
Non dago zure anai bikotxa?
Non zagoz, askatasuna?
Kartzelan gagoz etorri arte
gizonen gizontasuna.

AUSNARKETAK

- 1/ Jesus mundura etorri jakun
zelan bizi erakusten,
zerura dagon bide zuzena
gizonari argituten.
Baiña gizonak arro ta lelo
ezertxo ez dau ikusten,
indar guztiak egiten ditu
berbera ezebeztuten.

- 2/ Munduan bai da gizon artean
guda eta eztabaida,
eta azkenez lege guztia
indarrak jarrikoa da.
Egiarentzat zigorrik eta
samingarriena au da:
egirik ezin esan leikela
legez kanpoko bada.

3/ Ez ikaratu omenaldirik
artu ez arren munduan,
ondo egiñena artuko da ta
bai goiz edo beranduan.
On egiñaren sari bakarra
artu bearko dan orduan,
zuri Jainkoak ez dautsu esango
munduan artu zenduan.

4/ Mundu onetan gizonak daukan
buru-auste gogorrena:
zer izango dan bizitza onen
ondorean datorrena.
Gora begitu, urrin begitu,
ez dau ikusten azkena,
au osatzeko aspirina da
betiko itxaropena.

5/ Jakitun asko dagoz munduan,
baiña au gogoan artu:
Alguztidunak egiten daben
lana nok ein leiken neurtu.
Amabi ordu eguzkiakın
ta amabi izerratu,
milloika urte era orretan,
segundo bat ez erratu.

6/ Milla urtean bizi nai dunak
pentsa daiala onela:
gaur milla urte jaio zala ta
urteok pasa dirala;
beste milloi bat bizita ere
azkena elduko dala,
baiña sinistu orren ostean
betikoa datorrela.

7/ Munduko bizi guztiak sortu,
gizona euran arteko,
baiña gizona arimarekin
danetatik aparteko.
Beste mundura joan bear da
bizi nai dunak betiko,
ta emen zintzo eztabillenak
pasaportetik ez dauko.

8/ Gauza bat daukat nere barruan
ta beragaz ziur nago:
Jainkoarentzat ez dala iñor
iñor baiño andiago.
Jainkoarentzat anditasuna
alkar maitatzean dago,
salbatuterik ez dago eta
maitasunik ez badago.

- 9/ Eskubidetan gizon guztiak
gara alkarren antzeko,
iñor ez dago iñon ganetik
erabagiak artzeko.
Gizonak iñor juzgatuteko
gogo onikan badauko,
or da Jesusen lege zuzena
iñon atxakirik bako.
- 10/ Jesus mundura etorri jakun
zelan bizi erakusteko,
eta oraindik mundu erdia
bere izena entzuteko.
Or egon leike zerbait lepalpen
gure abadeentzako,
bi milla urte asko dira ta
atxakiak ipinteko.
- 11/ Atxaki bako lege sagrauak
dira Jesusen legeak,
eta gizonak jarritakoak
ezin leiz izan obeak.
Orregaitikan jakin daiela
letrauak nai erregeak,
gizonarentzat sagrau dirala
zeruko eskubideak.

- 12/ Kontzientziari egin leikion
utsikan andiena da
lagun urkoa zapalduteko
egiten dan matxinada.
Gure mundu au lau eguneko
baiño geiago ez bada,
zertan arraio bear dogu ba
ainbeste barrabaskada?
- 13/ Mundu au zer dan jakin naiean
egiten da aleginik,
eta orretan lagunduteko
auxe esango nuke nik:
mundu onetan ez dala ezer
azkenikan ez daukanik,
eta mundutik urten ezkeron
iñon ez dala azkenik.
- 14/ Argi zuzena ausnartuteko
ez gaitezen izan itsu,
argi au barik alper-alperrik
izango gara dirutsu;
obra onetan enpleatzea
gogoratzen ez bajatzu,
eriotzean diru guztiak
biurtuko jatzuz galtzu.

15/ Millaka illak dira munduan
egunean-egunean,
iñok ez daki zer pentsatzen dan
an azkeneko unean.
Ezen damurik izan ez daiten
au etorten jakunean,
atxakirikan ez euki iñoz
geure urko lagunean.

16/ Jaungoikoaren baimena dogu
mundu ontara sartzeko,
eta txantel bat emoten dausku
geure urteerarako;
eta txantel au ez bada garbi
urteeran agertzeko,
gure Jainkoa Alguztidun da
atxakiz engañatzeko.

17/ Sinisten dogu mundu onetan
ez gagozala betiko,
eta betiko ez dan guztiak
goiz-belu amaia dauko.
Jainkoak dauko baratz andi bat
gizon guztiarentzako,
zorieko baratz eder au
izango da amai bako.

18/ Mundu ontako egin bearra
amaitzen da eriotzan,
ondo egiñak, txarto egiñak,
izango doguz balantzan.
Txarto egiñak arantza artean,
ondo egiñak loratzen,
eta betiko izango gara
emen egindako saltsan.

ERBESTERATUAK ETXERA

- 1/ Anaiak alkar besarkatzean
eiten dira pozez bete;
anaiak asko poztu arren be,
nor bere amatxo beste?
Amatxok bere seme guztiak
beti izaten dauz maite.
Zure seme bat etorri da ta,
Zeanuri, poztu zaite.

- 2/ Gure Eukeni etorri dala
ezin sinisturik nago,
ainbat urtean erritik kanpo,
berrogei edo geiago;
sinistu ezin baiña berakin
naiz berbetan aoz-ao,
guzurra dala dirudi baiña
Eujenio emen dago.

- 3/ Ama Zeanuri oraindiño be
ez dago guztiz poztuta,
bere altzoan seme askoren
utsak ikusten ditu ta;
gure amatxo poztu dagigun
guztiok aleginduta,
famili maite bat egiñagaz,
baiña danok askatuta.
- 4/ Gure artean izan zirian
preso ta fusilatuak,
bai ildakoak ta zaurituak
eta bai desterratuak.
Norberarenak errazoiak ta
besterenak pekatuak,
baiña guztiak parka bearke
nai-ta ezin izan aiztuak.
- 5/ Azillona'ren esakera bat
esango dot gaur gogotik:
«egia gugaz, guztien aurka»
errazoiaren bidetik.
Gure Jesusek igon eban lez
lexako arri azpitik,
egiak gora igongo dausku,
len lez orain eta beti.

6/ Tamalgarri da ilte bildurrez
joan bear erbestera;
atsegin be bai agertutea
andik berrogei urtera;
gure Euketik ez dau ordaindu
guk egin geuntsan arrera,
egun bi barru iges eginda
itxi gaitu bertanbera.

Bertso oneik, Zer aldizkarian agertu zirean, 1977'ko Iraillean, aurretik argibide auek zituala:

«Zeanuri'ko errian ba genduan berrogei urtean erbesteratuta geunkan bat: Lejarza'tar Eujenio.

Paris aldian eta beste erri askotan, Prantzi aldian gorriak ikusita gero, azken urte oneitan Urruñe'n bizi izan jaku, bere emazteagaz, bake-bakean eta atzerrian bizi al leiteken neurrian zorientsu.

Politika-arazoakaitik atzerriratua izan zan guda ostean eta Paris'en, erbestertuen artean, aurkitu eban gaur emazte dauan andra gipuzkoar zintzoa. Joseba Andoni Agirre Lendakariak izan eban onetan zer-ikusirik.

Demokrasi-giroa Errian sortzen asi danean, itxuraz beintzat, ona agertu jaku Eujenio, ikurriña eskuan dauala eta burua makurtzeko bear izan barik, nai eban lez.

Erriak arrera ona egin dautso, jakiña, eta bere lagun zarrak pozik besarkatu dabe.

Sarrera egunean izan ziran berbaldiak eta «gora» oiuk ugari, baita bertsoak be. Jose Mari Artetxe bere lagunak be ba eukan bertso batzuk botateko guraria, baiña bertsolari au aspaldi onetan daukagu abots barik eta ezin. Basilio Pujana, erriko bertsolari trebeak bota zituan bereak.

ARRATIARRAK URKIOLA'RA

Mezearen asieran:

San Antonio Urkiola'ko
Euskal Erriko lurrean,
mendirik eta ederrenean,
Bizkaia'ren gallurrean,
Andoni Deuna, arratiarrok
gaukazuz zeure aurrean,
errogatiban etorririkan
fedezko lege zarrean.

Mundu ontako pasadizuan
zeure lagun zendun Jesus,
Urkiola'tik igaro ziñan
jarraitutzen bere pausuz.
Santu aundien altasun eta
grazi aundiak daukazuz,
gure lantegi, gure abere
ta gu bedeinkatu gaizuz.

Antionioren aldara aurrean
gaur egin gara alkartu,
meza eder au asi aurrean
egin gaitez an autortu.
Gure artean akatsik bada
bertan alkarri parkatu,
asmo eder au ez dakarrena
alperrik emen ez sartu.

Eskintza aldian:

Andoni Deuna, oso zailla da
izatea nekazari,
baiña munduko pasadizuan
auxe tokau jaku guri.
Guztia dala gogo onakin
dana daukagu opari,
zure bitartez eskinduteko
Alguztidun dan Aitari.

Agiri dana eta ez dana
gure Jainkoak egin du,
au olan dala, geure kontura
guk ezin geinke agindu.
Augaitik, Jauna, guk gura dogu
guztia zuri eskindu,
eskerrik asko daukagun arte
ta nai dozunean kendu.

Meza-azkenean:

Deun Andonigaz egondu gara
minutu batzuk alkarrik,
gutaiko iñok ez deila esan
egon garala alperrik.
Zaindariakin bat egoteak
iñon ez dauka neuririk,
eta eskerrak emon daiguzan
iñon badogu eskerrik.

Poz aundiagaz ikusi eben
benetan neure begiak,
eten bagarik antolatutzen
abade zuzendariak.
Jaunari eskerrak, oindiñokoan
badaukaz geure Erriak
bide zuzenai jarraitutzeko
abade agurgarriak.

Lege zuzenak jarri zituan
Kristo gure Erregeak,
baiña jaun batzuk aldatu nairik
dabiltzaz bere legeak.
Ta orren aurka jarri jakuzan
Euskal Erriko abadeak,
eurai eskerrak badau arnasa
Euskal Errian fedeak.

Bertso oneik *Zer* aldizkarian argitaratu zirean, 1977'ko Uztailaren zenbakian, aurretik argibide auek ezarrita:

«Antxiñatik dauke arratiarrak Antonio Deunaren jaia igaro eta urrengo zapatuan Urkiola'ra joateko oiturea. Aurten Zeberio, Ugao ta Orozko ez doguz ikusi an, tamalez.

Arrentza edo errogatibea esaten eutsoen gure asabak oitura oneri. Orduan oiñez joaten ziran eta santuen arrentza abestuez urreratzen ziran santutegira.

Aurten be an izan dira. Urte batzuk dirala, arratiar guztiak egun baten joaten gara geure alkartasuna adiazo ta osotuteko. An mezea ta damu-sakramentu batzangoa egiten doguz.

Ete dauko orain esangurarik errogatiba onek?

Baietz uste dogu. Baserritarrek Jainkoagandik ur bizi dira, eurengan ondoen alkartzen dira «lurraren indarra, matsondoa-ren indarra ta gizonaren lana».

Egun au, esker-egun lez artzen dogu orain, eta baserritarrentzat poz-eguna izaten da. Gero andik Estibaliz'era joan giñan.

Baserritarren pentsakera onein agerle izan daiten, aurten bertsolari bat izan dogu an: Pujana'tar Basilio, arratiarra, Zeanuri'koa».

GORATZARREZ

- 1/ Gure *Príncipe de Viana*'ri
amaitu jako baraua,
baita berakin zapaldu bere
gorrotoaren biraua.
Gure euskera gaizkatutzea
dau gaurko egitaraua,
euskaldun danok emon daiogun
geure aldeko garaua.

- 2/ Danok diñogu gauza zarren bat
ondo zaindu bear dala,
zaindu be asko egiten dira
milloi-mordo bat an dala.
Ortan umezurtz aurkitzen jaku
gure euskera makala,
izkuntza zar au ez al dogu, ba,
monumentu nazionala?

- 3/ Mundu onetan dagon guztia
gure Jainkoak egin du,
eta Jainkoak emondakorik
iñok ezin leike kendu;
baiña bakotxai emondakoa
bakotxak bear dau zaindu,
norberetzako emondakoan
bestek eztaian agindu.
- 4/ Prantziatarrak prantzes dira ta
judegutarrak judegu,
Euskalerrian jaio giñanok
olan euskaldun gara gu.
Mundu ontako eginbear bat
ondo bete nai badogu,
geure arduran dogun izkuntza
zaindu bearra daukagu.
- 5/ Gure euskera maitagarria
bizi-bizi nai dogunak,
oindik arnasa badauka eta
gaur saiatu, euskaldunak.
Izkuntz au bada galtzen bajaku
danok gara errudunak,
andi ta txiki guztiok baiña
batez bere jakitunak.

6/ Erderagaitik esaten dabe
onena: «*Made in Spain*»,
errazoiagaz baita jarri be
oso goian eta apain;
ta euskaldunok egiñagaitik
geure euskerearen zain,
amorru biziz artzen dauskue
politikearen usain.

7/ Kristo Jainko be erru bako zan,
t'erru danak beretzako...
Euskerari be orren antzeko
gauza bat jazoten jako:
gure euskerak politikakin
zer ikusirik eztauko,
baiña beti da atxakiren bat
erru bakoia ilteko.

8/ Arkitektoa ei dogu orain
bai zuzendari barria,
guk langilleok gertatu daigun
morterua ta arria.
Guztion arte jasoko dogu
jauregi zoragarria,
bere izena au dau izango:
Euskaldun Euskalerria.¹

¹ *Príncipe de Viana*, 1982, I.

JOSE MARI ARTETXE ZANA

Zeanuri'ko Jose Mari Artetxe Beobide, bertsolari lagun izan neban.

Ainbat kantaldi egin gendun gazte denporan. Amaika barre ta adar-jote; baita bere gauza sakon asko esaten genduzan. Nere bertso-burrukarik andienak beragaz egin nituen.

Gero, azken urteetan, igaroak igarota bere, ekiten geuntsan.

Ejenplu modura bi ipiniko dodaz:

Artetxe'k:

Gure Pujana Bilbo'n bizi da
ango Matiko partean,
baiña errira etorten jaku
beti astean-astean.
Tranbi zar ortan ez etorteko
etorten jaku kotxean,
eta bultzaka arrankau bear
artzen dauan bakotxean.

Pujana'k:

Kotxea badau Artetxe'k bere,
indarrez dauz zazpi zaldi,
zarra da eta itxura baten
badaukaz iru gizaldi.
Ibili daiten egiten deutzaz
makiña bat zirrikaldi,
astegunetan ez da ibiltan
eta domeketan geldi.

Au bere jazoa da, eta bere sasoian Ar-
tetxe'ri kantatutakoa, praile bere egon za-
lako:

Gure Artetxe'k gauza danetan
dakiz gauza eder asko,
jatorriz bere argia da ta
praile be egon zalako.
Baiña prailetz'au istearakin
etxakun portau ain listo,
bada au gaur an egon balitza
onezkero Arzobispo.

Jai egin gendun beste batean, eskolako denporan ateratako argazki batzuk gomutakiz zabaldu genduzan; eta, gure Artetxe argazki orretan ez egolako, au kantau neutson:

Gure eskolako argazki ortan,
lagun, ez zaitut ikusten,
eta zergatik au izango zan
orain naiz gogoratuten:
aldi aretan zuk eskolara
kalba eiten zendun sarriten,
ta argazki au aterako zan
kalba ein zendunen baten.

Gero, gaitz zatar batek jo eta abotsa galdu eban Artetxe'k. Eta, Miren bere alaba kutuna ezkondu zanean, ezin kantatu.

Baiña Balendin Enbeita eta ni egon gintzazan bertso kantari elizan, eta nire aldetik olako batzuk kantatu nebazan:

Errespeto guztiaz
meza santuari,
bertan asi bear naz
bertsotan kantari,
gazte dizdiratsu bi
diralako etorri,
maitasunen promesa
egiten alkarri.

Mundua martxan dago,
iñoz ezta geldi,
beti doia aurrera
gizaldiz-gizaldi.
Gaur zeuena dozue
bertan ekitaldi,
guraso zintzoaren
jarraia izan bedi.

Biok egin dozue
egazkada bana,
kabi barri bat sortzen
gaur alkarrengana.
Maite izango dozue
etorriko dana,
baiña iñoz ez aitzu
aita eta ama.

Gurasoen etxean
lendik ondo bizi,
eta alan da bere
etxetik igesi.
Nai-ta munduko gerra
danak irabazi,
amoreen indarra
guztien nagusi.

Ainbeste indarrerako
zer da amorea,
alkar iskintzeraiño
bakotxak berea?
Alkarrik jokatzeko
indar ta adorea,
gero etorriko dan
frutuen lorea.

Bai, lagun Jose Mari,
emozio ta poz,
zeuk ezin kantatu ta
oso artega zagoz.
Baiña lagun zar on bi
gaur zeurekin gagoz,
zuk biotzez diñozuna
esateko aoz.

Beste bi bertso auek, ezkongaiantzat
kantatuak:

Xabier ta Miren biok zarie
etxe on bitan aziak,
ta gurasoak maixu dirala
oitura onak ikasiak.
Zuen bidea argitu bedi
Jaungoikoaren graziak,
bide ortatik eroateko
ondorengoak guztiak.

Indar on danak alkartu eta
sarri ekarri gogora
gizona zer dan munduan eta
baita nondik eta nora.
Au ausnartzeko, zailla da baiña,
fedez begiratu gora,
ta fede orrek iraun daiala
urrengotik urrengora.

Jose Mari Artetxe, nere lagun maite ori,
1983'ko Urteillaren 14'an il zan, Zeanuri'n,
iruroge ta bederatzzi urterekin. Beraren ille-
tan, nere azken agurra:

Azken agurra nere bertsoan,
Jose Mari, lagun maite,
zeure bizitza igaro dozu
lan, kartzela ta gerrate.
Alan da bere Jaungoikoaren
borondate danak bete,
Alguztidunak artu zaizala
eta agur, laster arte.

Gero, bere emazte ta seme-alabak es-
katu eustien, il-gomutakian ipinteko, bertso
bat; eta au da:

Bai, Jose Mari, zu izan zifian
gizon oso-osokoa,
gure erria goraldutean
berba gozo-gozokoa.
Zuk biotzetik maite zenduzan
erria ta Jaungoikoa,
Alguztidunak emon daizula
atseden on betikoa.

BERTSO BARRIAK
BASILIO PUJANA'K JARRIAK
1983'KO URTEAN,
AITA DOMINGO ITURRATE BEATO
EGIN ZANEAN,
BERE JAIOTERRIAN, DIME'N,
EGIN JAKON OMENALDITZAZ.

- 1/ Aspaldi ontan ez nabil baiña
sarritan bertso kantetan,
oraindik zerbait kantatutzen dot
meza eta omenetan.
Lengoan Dime'n kantatu eza
sentidu neban benetan,
an kantatzeko euki nebana
bebil bertso-papeletan.
- 2/ Bizkai aldeko lur zabalean
dogu Arrati'ko aran,
gizon aundiak emon dituna
bizitzan zear illaran;
eurai eskerrak daki munduak
arratiarrok nor garan,
orain guztiok ikusi daigun
Aita Domingo altaran.

- 3/ Zori onean Dima'ko atxak
diztiaz eban izarra,
aurtxo bateri izentatzeko
santu-bideko iparra;
aur txiki orren biotz barruan
izarra eban txingarra,
Jainko-jokoan indartu daien
kemen, sua ta indarra.
- 4/ Aren guraso kristau zintzoak
au egin eben lenengo:
erri-elizan bateatu ta
izena jarri Domingo;
Jaungoiko-bide zuzen argizko
maillan eratu urrengo,
gure Egillea izan dakigun
ospe ta aintzaz goirengo.
- 5/ Gure Domingo praille joan zan
egin zanean mutiko,
alai-alairik Jaungoikoaren
deiari erantzuteko.
Au da lenengo bere mirari
parabolaren antzeko:
gure artetik joan zan, baiña
geurekin dago betiko.

- 6/ Praille joatean bere amatxok
onela esan ei eutsan:
«I santu ez az egingo, baiña
beintzat mutil ona izan».
Zer alaitasun zoragarria
orain bizi izan bazan,
bere Domingo santu eginik
bere erriko elizan!
- 7/ Txomin Aitaren izkuntz maitea
euskera izan zalako,
euskaldunentzat anditasuna,
baita euskerarentzako.
Aita Santuak esan eutsazan
lau berbatxo euskerazko,
istorirako izango diran
lau berba urre gorritzako.
- 8/ Bertsoan esan bear baneunke
zer diran gure santuak,
esango neunke eurak dirala
sortzean bertan autuak.
Gizon guztiok doguz argiak
Jainkoagandik artuak,
baiña santuak daukez aparte
mirarizko merituak.

- 9/ Gurasoentzat proba-arria
dago une gogorretan,
gure erria birtutetsu da,
bai, jaunak, arlo orretan.
Gizonarentzat anditasuna
bada goirengo mailletan,
erriarena bakarrik dago
erritarren biotzetan.
- 10/ Gizon jakintsu asko ei dira
Madrill'en eta Paris'en,
pentsetan nago gizonok bide
zuzenez ete dabizen.
Mundu onetan gizonak egun
gitxi zelan daukaguzen,
onena dogu, maite izanik,
Aitagana joan zuzen.
- 11/ Umetxotatik lotzen gaituz-ta
deabru zatar maltziñak,
Jainkoarentzat bakarrik doguz
zartzaroko ondakiñak.
Gogoan artu Aita Domingok
gazte-gazterik egiñak,
ito ez gaizan droga zatar ta
inguru dogun zizaiñak.

12/ Arratia'ko gazte maiteok,
auxe bertso au aditu,
ez da auntzaren eztula eta
biotz barruan ausnartu:
iñoiz bagagoz eztabaidean
munduan zein bide artu,
Aita Domingo'rena artuta
bertatik zuzen jarraitu.

Bein baten, Aita Domingo Iturrate'tzaz
Dima'ko elizan kantatu neban, bera ainbat
len santu egin deiten.

Gero, beato edo doatsu egin zan or-
duan, omenaldi bat egin jakon bere errian,
Dima'n.

Ni pozez eta gogoz nengon egun orre-
tan an kantateko. Beratzaz bertso batzuk
preparauta bere euki nebazan.

Baiña beste bertsolari batzuk kanpotik
ekarri ebezan, eta niri ez eustan iñok ezer
esan, nai-ta, Aita Domingo bezela, Arratia'-
ko semea izan.

Kanpokoak kantatu eben, eta arratia-
rrok ixil-ixilik egon bear.

Baiña an kantatu bear ziran bertsoak,
bertso-papeletan jarri nebazan, eta bertso
orreik oneixek dira.

BEGOÑA AZPIKO IKASTOLAN

Begoña azpiko ikastolako umetxoak,
1984'an, euran jai baten kantatzeko, jarri
nebazan bertso oneik.

Amar urteraiñoentzat:

Gure euskera dabil
jausi, jaso, jausi,
baita batzuk nai dabe
kurutzean josi;
nai-ta ankaperatu
ezin dabe ezi,
guzurrean txiki da,
errazoian nausi.

Indarren justizia
da guzur osoa,
egia zapaldua,
guzurra jaso;
orren eskuan dago
euskera gaixoa,
bere bizia dogu
misterioa.

Sinistu daigun bertan
au egia dala:
txarrak jaten dabela
onak egin ala.
Euskera jan nai deusku,
au gure tamala!
Geuk agertu dagigun
euskaldun garala.

Agiri ta eztana
Jainkoak egin du,
eta berak emona
ezin leike kendu;
baiña geutzat emona
bear dogu zaindu,
gure gauzatan iñok
ez daien agindu.

Amar urtetik amalau urteraiñokoentzat:

Begi aurrean doguna beintzat
egin dagigun ikusi:
bere kultura bako erririk
ezin leitekela bizi.
Emen euskera eztakiana
ikasten gaur bertan asi,
gu gaztetxoak bagabiz eta
gurasoak be ikasi.

Geuk euskaldunok artu dagigun
Euskalerriko ardura,
geure kultura jasoarekin
merezi daben lekura.
Erriarentzat sagraduena
dalako bere kultura,
kultura galtzen dauan erriak
bertan dauko sepultura.

Zori txarrean gaur da nagusi
traizioa ta indarra,
orren menpe da gizaldi t'erdi
gure erri maite zarra.
Gu bere seme garan ezkeru
daukagu zaindu bearra,
alperrikoa izan eztaite
il da geroko negarra.

ARTZAINARI AGUR
(1985'eko Urteillaren 13'an)

Artetxe'ren urteurren baten, eta egun
atan, meza nagusian, Jesus Mari gure pa-
rrokoari agur egitean, bost urte gure artean
egon da gero, bere errira, Ondarroa'ra,
bere gurasoen ondora joan zanean, bertso
oneik kantatu nebazan:

Gaurko meza au benetan dogu
emozioaz betea:
zati bat dogu gogoratzea
Artetxe lagun maitea,
gure Artzain dan Jesus Mariren
aldakuntza da bestea;
tamal da baiña bete daitela
Jaunaren bodondatea.

Ziur nago ni, gaur Jesus Marik
auxe izango dau naien:
danon arimak alkartutea
Zeruko Aitaren maien.
Gure aldetik eskerrik bada
au estimauko dau geien:
zeanuritarrok eskatutea
bera salbatu daien.

Mundu ontako pasadizuan
danok dogu arlo bana,
eta bakoitxak bete bear dogu
arlo orretako lana.
Zuk, Jesus Mari, bete bear dozu
gure Gotzainen esana,
baiña egundo bere ez aitzu
zeure aita eta ama.

Ni ziur nago zuk Zeanuri
ain dozula biotzeko,,-
Zeanuri'k be beste ainbeste
gordetzen dau zuretzako.
Era orretan egundo bere
alkar ez gara aitzuko,
gu ezagutu giñan orduan
ezautu giñan betiko.

SEME-ALABA AGURGARRIAK

Zeanuri'ko gure errian, 1985'eko Abenduaren 8'an, egin jakien omen bat, abade, praile edo moja diran bertako seme-alaba agurgarri guztiai.

Beste sarriten antzera, eskatu egin eus-tien meza nagusian orretzaz kantatzeko, eta bai pozik be nere erri ta erritarrai.

Oneik kanta nebazan meza asieran:

Sinistu ezin ze ikusten daben
gaur emen gure begiak,
beste ainbeste sentitutzen dau
Zeanuri'ko erriak.
Alkarturikan bere seme ta
alaba agurgarriak,
Zeanuri'k pozez ikusten ditu
bere frutu ugariak,
irriparreka artzen zaitue
gaur gure Andra Mariak.¹

¹ Andra Mari da erriko zaindari.

Zeanuri'ko erri umilla,
argia eta apala,
ta baidakigu bere seme asko
ortikan joan zirala
maitasunagaz usaindutera
samin dan mundu zabala,
osasuna ta bizia bere
askok or emon ebala;
meza onetan agertu daigun
gogoratutzen garala.

Meza amaieran:


Meza andi au biribiltzeko
anai bat dogu Gotzaiña,
guztion arte apaindu dogu
meza andi ta bikaiña.
Pozez gagoz gu, anai guztiak
ez dira etorri baiña,
etorri eztanak eukiko eban
bere etorri eziña,
aizearekin artu daiela
meza eder onen usaiña.

Goiko indarrak urrutu-eta
ekaitz gaizto eta laiño,
zeruetako izpi zorrotza
sartu da gaur geuganaiño.
Onek diñosku Jaunan grazia
baidogula oraindiño,
anai-arrebok, au ikusirik
nere biotzak gaur diño:
batzuntzat egun bat geio dala
askontzat eun urte baiño.

Ordu batzuek egondu gara,
anai-arrebok, alkarrik,
Jesus Jauna be emen dogu ta
ez gara egon bakarrik.
Guteiko iñork ez daigun esan
egon garala alperrik,
onako egun bat baliatzeko
iñon ez dan lez neurrik,
egun bikaiñ au luzatu daigun
betiko bizi-bizirik.

AZKENA

Egi batzuek aixetaratzen
egingo nuke jarraitu,
baiña neikoa esan dot eta
bertan gura dot amaitu.
Nik parka eska ezagaitio
ez zaiteze ikaratu,
bada egia esateari
ez dago zetan parkatu.



AUSPOA
LIBURUTEGIA